


Antton Kazabon

# Koskotenekoak




1117J

GAS-128/87

# Koskotenekoak

---

Auspoa Liburutegia  
230



---

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Antton Kazabon

---

# Koskotenekoak

Marrazkilaria: Andoni Odriozola

---

Auspoa Liburutegia  
(1995)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-22-4

Legezko Gordailu: S.S. 666/95

# Antton Kazabon

## Katanbegi galduaren begi-belarriak

---

Orain 40 urteen bueltan gabiltzanon belaunaldiaren patua dela dirudi: gazteen artean ibiltzeko zaharregi, eta zaharren artean txoko bat izateko gazteegi, goizegi bezain beranduegi jaioak izatea. Harritu ere egin liteke norbait, Antton Kazabon *Auspoan* ikusita.

Belaunaldi horretxan ordezkari petoa baita Antton. Ez adinez bakarrik, bere bertso paperetara jasotzen duen mundu-ikuskeraren oso belaunaldi horrena dugu. Izan ere, ez ditu urruti garai bateko eta —aita Zabalak hain arduratsu sail honetan bildutako— zaharragoen kontu haiek. Eskolan euskaraz debekatu eta erderaz ezin, eta gisako dezente azaltzen zaizkigu liburu honetan.

Ikus, adibidez, *Txikitako Bildurrak* edo *Zertan behar dut sinistu*. Berak bizi izan duen mundu horrekiko atxikimentu bat ageri da, halako urrutimin moduko bat.

Baina geure begien aurrean suntsitzen ikusi dugun mundu horrekiko testigantza nostalgiazkoari, arrapaladan eta ustekabearen hasi eta puztu zaigun “mundu berri”aren aipamenak gailentzen zaizkio. Aipamen kezkatuak dira gehienak, kritikoak, garai berrietara nekez eta are gogoz kontra egokitutakoaren itxuran. Ez da jarrera berria, ba du bere tradizioa, urrutira gabe gainera: horra Oiartzundik bertara *Oraingo Errenteritari* jarritako bertso ezagunak.

“Baina urteak ezin ditugu / berriz itzuli atzera.”  
dio *Aita*, *zergatik zaude negarrez* sailean, liburu honetan aurkituko duzun benetakoen eta sentituenetakoa den horretan. Iraganminez ari da, baina orainari uko egin gabe, mundu berria barru-barrutik bizi duelarik.

Ez dabil Antton esanmoldearen finezia erabatekoaren bila. Zeresanetik abiatutako bertsoak direla esango nuke. Formarekiko, teknikarekiko kezka ez du, horratik, baztertzen. Nahita ere ezin izango luke, bertso jartzailez gainera idazle, irakasle, bertso eskoletako bultzatzaile, eta bertso txapelketetako epaile izaki. Baina hori guztia, esan nahi duenaren horren zerbitzutan ageri zaigu beti. Eta esan nahi duen hori, bere iritzia izaten da, gauza guztien gainetik, jendaurrean gustatuko den ala ez gehiegi erreparatu gabe.

Antton ezagutzen duenak badaki lagunarteko adarjotzea dela, pilotarekin batera, maiteen duen kirola, eta era guztietako irri, ziri eta pasadizo bertsoak topatuko dituzu hemen. Baina serio jarrita, ez du kezkatzen duenik alboratzen. Ikastola, politika... denak ditu kantagai, eta horrelakoetan hartzen dute bertsopaperak benetako indar esataria. Ezkor ageri da, oro har, gaur egungo balio-sistema ikusirik.

Maizenik aipatzen dituen gaitzak: diruaren gehiegizko boterea, mundua mendean harturik daukan gorrotoa... Politikariekiko bere ustea lelo ozpin eta esanguratsu honetara laburbiltzen du, *Entzunez ene balada* sailean: “Politiko, politiko / ez zaitut oso begiko / traje beltzeko ijito”.

*Baserri txuri gorrietako* izenburu engainagarriaren pean honela dio: “irakurlea, audientzia, / betiko aitzari petrala”, hedabideetako gaitzik kezkarrienaren diagnosis eginez, eta bertsoentzat gai-esparru berriak jorratuz. Datozela gero bertsolari unibertsitari nahiz kazetariak, zehaztu beharrekoak zehaztera.



Desegoki zaion mundu horren aurrean ez du, beraz, iraganera itzultzeko aldarririk egiten. Geroa izango omen den mundu berri hori, ordea, gizatiarrago, geureago, euskaldunago nahi lukeela dio behin eta berriz, gorrek ere entzuteko moduan.

1987tik 94ra bitartean idatziak dira bertsopaper hauek. Denbora joan ahala handitu egiten da Anttonen formarekiko ardura, baina beti ere esan nahi den horren morrontzan. Azkenekoetan, esperimenterako gogo nabari zaio, *Aiako harriari* jarritakoetan, adibidez.

Behin bakarrik uste dut nagusitzen zaiola formarekiko ardura edukinarekikoari: *Maitemindu naiz* sailak, hain zuzen, areago dirudi irudiekin jolas egiteko dibertimendu bat, zerbait kontatzeko saio bat baino.

Lazkao Txikiri jarritakoetan argi eta garbi da idatziaren eragina, beste hainbatetan bezala. Logratuenak, halere, bi munduak, zaharra eta berria, uztartzen dituztenak direlakoan nago. *Ehiztariei* jarritakoak, adibidez. Ez dakit ba ote dagoen gai klasikoagorik, erabiliagorik bertsotan, ehiztariena baino. Lehen lauzpabost aleetan ohiko bidetik doala dirudi, jeneroko bertsoak lantzen. Seigarrenean, ordea, hegabera hizketan hasten zaio ehiztariari, halako burlaize nabarmen batez, jeneroaren hesiak hautsiz.

Beste bat, aipatu gabe ezin utzi litekeena, Retegi eta Tolosaren arteko partidua kontatzen diguna, gipuzkoarrak txapela irabazi zuenekoa. Ez naiz ni pilota-partiduak kontatzen dituzten bertsopaperen zale, eta hori gutxi balitz Anttonek *Juana Bixenta Olaber*en doinu egitura hautatzen duela ikusirik, bere ahaleginak porrot egingo zuen etsita ekin nion, egia esan, bertsoak irakurtzeari. Kontatzen den partiduan katedrak bezala, bete-betean huts (halakorik baldin badaiteke, behintzat) egin nuela aitor-

tu behar. Doinu horren binakako egituraz ezin ego-kiago islatzen baitu Anttonek pilota-jokoaren bizitasun, erritmo eta kadentzia. Horra, nire aurreritzia-  
ren arabera agurren protokolorako bakarrik, edo gehien jota giro lirikoko bertsoetarako balio lezake-  
en doinua narrazio bizietarako irabazirik.

Hitz batez, eta berriro hasierako arrastoan sartuz, bere denboraren lekukotza utzi digu Antton Kazabonek bertso hauetan. Berea eta, era berean, desgaraiz jaiotako belaunaldi batena (garaiz jaio uste duen belaunaldirik ba ote denentz, hori besterik da).

On da, nik uste, belaunaldi horrek bere lekua har dezan herri-oroimenaren etxe amankomuna den *Auspoa* honetan, eta alde horretatik espero dezagun Anttonen atzetik beren bertsoak hantzen hementika barreiatu —eta alferrikaldurik?— dituztenek pausua eman dezaten, aurreko belaunaldiei lekukoa hartuz. Nork daki, urte gutxi barru ez ote zaizkigun ikerlari gazteak etorriko, geure hizketa modu “naturalaz” gustaturik, mundua dijoan martxak kezkatu... bertsoon egilea aurrekoekiko ageri duen jarrera berean.

Azkenik esan dezadan bertso paperotako gehienak sarituak izan direla, eta lehiaketa horietan dabilen bertso gintzaren mailaren isla ere badirela alde horretatik.

Baina aski da hitz lauz. Sar bedi irakurlea, aldi jakinerazten zaion doinua harturik bertso hauek irakurri, kantatu eta gozatzera. Atariko honetan presaka eta korrika aipaturikoez gainera baliteke beste gozamen-iturriren bat edo beste aurkitzea. Bejondeiola.

*Joxerra Garzia*  
1995-III-14



Koskotene baserria (Iriso berri). Jaiotetxea.

# Ehiztaria

1987



1 Hamarreko ttikian  
hor doa dozena  
“*Hamalau heriotza*”  
doinuan izena,  
hemen datorkizue  
*ehiztaria zena*  
bertsotarako nahiz ez  
izan nere sena;  
ea hustutzen dudan  
nere almazena.

2 Hilbeltzaren erdian  
zen negu gorria,  
hegabera ugari  
hona etorria,  
odolean nedukan  
ehiz-egarria  
eta ezagutuaz  
dudan aiurria,  
nere punteriarri  
hartu nahi neurria.

3 Elurraren zuria!  
Neguaren beltza!  
Eta elur malutak  
goitikan beherantza,  
zertxobait atertzeko  
nuen esperantza,  
ta eduki ondoren  
hainbeste zalantza,  
ehiz-eguna zela  
eman nion antza.

4 Erreka ziztorretik  
ihi eta lohia,  
aurpegia hozkirri  
barruan sasoia,  
lurra maindire zuriz,  
beltza zero goia;  
bi kartutxoak sartu  
prestatu kainoia,  
ba nuen nahiko posta  
eta perdigoia.

5 Begi bat itxi eta  
kainoia aurrera,  
tiroa bota arte  
zenbat gorabehera.  
Han elurretan ttentte  
erne hegabera  
tiratzeko unean  
neroni begira  
orduan eskopeta  
egin nuen behera

6 Nahiz eta hegaztien  
hizkuntza jakin ez  
hark zer esan nahi zidan  
ulertzen zen errez,  
elurretan haztarka  
mokoz eta oinez:  
“—Janari pixkat nahi dut  
tiro baten orde—”  
Bihotzak hunkiturik  
egin zidan gainez.

7 Buruan ttonttorra ta  
urdinxxkak heguak,  
beltzak bular-kokotzak  
ta isats onduak,  
tripa txuri-txuria  
azkarrak zanguak,  
begiak bixi-bixi,  
kiluak galduak,  
ongi argaldu zuen  
berriro neguak.

8 “Hizketan” jarraitzen du  
keinu eta guzi,  
ez zitzaion nabari  
guk haina malezi:  
“—Ifar Europa eta  
Asiatik hasi,  
honera etorri naiz  
hotzari ihesi,  
tiroz hola hiltzea  
ote dut merezi?—”

9 Lumak harrotu eta  
berotasun eza,  
ta nik akabatzea  
gauza aldrebesa,  
hargatik egin nion  
bertatik promesa,  
ehiztari batentzat  
etzen ez erreza:  
“—Gurean izango duk  
neguan babesa—”

10 Begiek ñir-ñir eta  
taupadak bihotzak  
ezin gorde nituen  
barreneko lotsak  
gizonon grinak ere  
ez al dira motzak:  
Tiroz kendu nahirikan  
bere gose-hotzak.  
Altxa arazi zuen  
tiro baten hotsak.

11 Bihotza hegaberak  
eta bihotza nik,  
han etzen ez atera  
tirorik nigandik.  
Ehiztari izana  
gazte-gaztetandik,  
nola hunkitu nindun  
ez dakit oraindik,  
zenbat burla geroztik  
ehiztariengandik.

12 Eskopetarik hartu  
ez dut harrezgero,  
eta geroztik dabil  
hainbat "domingero":  
burua arin eta  
gizonetik zero;  
sagar, gaztain, mizpira,  
ta txoriak gero.  
Ehiztariak bost eta  
ehun "eskopetero".



# Osasuna, mundu honetako ondasuna

1988

---



1 “Goizean goizik jeiki ninduzun”  
doinua harturik lagun,  
bertso alaiak aire tristean  
ea moldatzen ditugun.  
Gauza serio eta sakonak  
esaten gau eta egun...  
Gizarte triste ta ilun hontan  
far ere egin dezagun.

2 Ogi zuria, ogi beroa  
labetik irten berria,  
afal aurretik, afal ondoren  
ezin harturik neurria,  
edozerekin ongi sartzten da  
gauza estimagarria.  
Ogi pixka bat osasuna da.  
ezak sortzen du larria.

3 Aza, txorizo, urdai giharra  
babarrun ta odolkia,  
mondongo puska lodikotea,  
atzetikan saiheskia;  
gibel punta bat saltsan jarrita  
hasiera egokia.  
Porru-patata osasuna da,  
ondasuna txerrikia.

4 Saltsan jarrita arkume ona,  
arkume ona erreta,  
olio grasaz esku, aurpegi  
eta kokotza beteta.  
Haragi pixkat presta dezagun  
errez jango dugu eta.  
Entsalada bat osasuna da,  
ondasuna da txuleta.

- 5 Sagardo ona, ardo hobe  
hoien atzetik gabiltza,  
hortatik aski izan ezker  
alaitasunaren giltza.  
Zumoak hartzen hasten bazara  
oso sano ez zabilta.  
Ur hotz gardena osasuna da,  
ondasuna ardo beltza.
- 6 Postretarako soilik mamia,  
beteko al da kupela,  
bizkotxo pixkat, ta flan txiki bat  
gehiegizkoa ez dela;  
tarta ere jan egin beharko  
hondatuko da bestela.  
Fruta freskoa osasuna da,  
ondasuna da pastela.
- 7 Horrenbeste jan, hainbeste edan  
irtenbide bat bakarra:  
Kafearekin sartu ditzagun  
kopa batzu barra-barra;  
patarrik gabe, txanpainik gabe  
nahiko afari kaxkarra.  
Kamamiloa osasuna da,  
ondasuna da patarra.
- 8 Gorputz guztia —a tope— dago  
gorputza eginik zisko,  
orain birikak ketan beltzatuz,  
eztulka hasteko listo;  
piztu ditzagun zenbait txiskero  
eta piztu zenbait misto.  
Oxigenoa osasuna da,  
ondasuna Montekristo.

9 Afaldu eta orain etxera:  
Hori gauza aldrebesa.  
Gizon jokatu, kristuak ez du  
izan behar hain eskasa;  
sartu dezagun alkohol pixka bat  
estutu arte arnasa.  
Lo egitea osasuna da,  
ondasuna da gau-pasa.

10 Bi pausu eman behar dira ta  
goaz kotxearen bila,  
exeri eta nekatu gabe  
gidari on ta abila.  
Eta nekatu nahi duena  
oinez ibili dadila.  
Oinez joatea osasuna da,  
ondasuna berebila.

11 Zer arraio da orduan mundu  
honetako ondasuna?  
Bertso hauetan aurkitu dugu  
egitazko erantzuna:  
Gure gorputza nola hondatu,  
da gure eginkizuna,  
gero begiak zerura jaso  
ta eskatu osasuna.

# Sagardotegian

1988

Doinua: *Ai, gure antzinako.*

---



Jose Joakin Mitxelena, sagardotegiko bertsolari handia.  
Ezkerretik: Lazkao-Txiki, Imanol Lazkano eta Xabier Amuriza.

1 Santa Ageda pasa  
ta Ihauteriak  
a ze komeriak!  
Kandelero eguna  
ta kandelariak.  
Garizuman barauak  
eta bijiliak:  
Arraia jan ta utzi  
behar haragiak,  
Zertarako ireki  
sagardotegiak?

2 Larunbata ez bada  
berdin ostegunez  
eta gusto onez  
pixkat ahaztuzeko  
nekez eta lanez.  
Aitzaki bat hartuta  
haragia janez  
laguntzeko sagardo  
berria edanez,  
nahiz biharamonean  
lanera joan ez.

3 Plastikozko poltsetan  
txuletak sartuta  
eskuan hartuta,  
baratxuri, ogiak  
ez daude ahaztuta.  
Hankak lurrari joka  
hotz egiten du ta,  
gorri-gorria berriz  
sudurraren punta,  
orain mihia sano  
laxter trabatuta

4 Zipotza atera-ta  
"zar-zar" zirrioa  
hori jariora!  
Dirudi harkaitzetik  
jaisten irrioa,  
kolorez berdea da  
apar rubioa,  
basoa hustu gabe  
motel nora hoa?  
Berriz betetzekotan  
egin zak tragoa!

5 Nahiz eguraldi hotza  
giroa epela,  
begira bestela:  
Tortilarekin neska  
hor ba datorrela,  
gerrikoa askatu  
lasaitu pardela,  
bestela nola hustu  
aurreko kupela.  
Erretzen ari al da  
parrilan okela?

6 Tortila kizki-kazka  
segituan ziplo  
ez gaitezen ito!  
Tenedoreak hartuz  
gogor eta tinko,  
batek pusketa kendu  
ta besteak zipo,  
jan gabe behintzat nola  
ez dugun etsiko,  
txuleta etortzean  
ez dut ez utziko.

7 Barrika bat hustuaz  
beste denak bete  
leporaino tope,  
mihia ere jarri  
zaigu nahiko torpe.  
Hau ezin kabitua  
salto eta bote,  
begiak gorri-gorri  
txiki ta miope:  
zipotza sartu nahi-ta  
hamabi bat kolpe.

8 Sagardotan igeri  
intxaur ta txuleta,  
izerdiz kopeta,  
tortila honezkero  
ederki gordeta,  
eztarriraino gainez  
sagardoz beteta,  
ta pixa egiteko  
ezin hartu beta,  
kantari hastekoere  
ordua da eta.

9 Bertsoak kantatzeko  
prest daude gehienak  
ahazteko penak:  
Bilintx, Iparragirre  
ta Xenpelarrenak,  
Markesaren alaba  
ta Otañorenak,  
Nere sentimentua  
ta ijitoenak.  
Ongi kantatu ere  
bertso zahar denak.



10 Ondoren bapatean  
bertsoak kantari  
hamaika komeri!  
Gaur denak esatea  
ez al da komeni?  
Bat hanka-luzea ta  
bestea motzegi,  
puntua jarri baina  
inork ezin segi,  
zentzurik gabekoak  
ta poto gehiegi.

11 Ordaindu ere egin  
beharko da noski  
bestela itsuski,  
mila pezeta dena  
postre eta guzti.  
Kanpo ta barruz ongi  
sagardoaz busti,  
atzetik bertso zahar,  
berri ta abesti;  
dena ordaintzekotan  
ez da ez garesti.

12 Kontuak ordaindu ta  
hustu poltsikoak  
gero gerokoak,  
bidea aurkitzeko  
orain oztopoak.  
Sagardotegi denak  
dira antzekoak  
Euskal Herrian asko  
eta nolakoak?  
Bertsolari Eskola  
garai batekoak.

# Jo pilota!

Fandangorako eginak

1989

---



Badoa Oier, "Hiruan bote eginda..."

1 Saskitik aukeratuta  
bote txikiko pilota,  
eskuak berotu azkar  
ezker paretaren kontra.

2 Txapa aidean lurrera  
eta sakea norentzat?  
aurrenekoa gerriko  
gorria duenarentzat.

3 Pilota denak probatu  
eta motela nahiago;  
mila berrehuni dirua  
gorriaren alde dago.

4 Hiruan bote eginda  
azpi-azpitik sakea  
eta bolea eskubiz  
txokora errematea.

5 Sotomanoz ezkerakin  
zartada errebotera,  
ta ezker-gantxo neurtua  
txokotikan zabalera.

6 Eskubiz jota txokora  
hori txapa-gainekoa!  
Gero ezkerrez harrotuz  
atzeraino zartakoa.

7 Kortada bildugarria  
arrimatua ta motza,  
ta bi paretetako  
bizia eta zorrotza.

8 Hurrengoan zabalera  
lau ta erditik dejada,  
eta horrenbesterekin  
lagunak aski ez al da?

# Urtarrilatik abendura

1989

Doinua: *Juana Bixenta Olabe.*

---

1 Urte Zaharra joan da eta,  
Berria gogo ta asmoz beteta.  
Nahiz elurrerakin herabeak  
seian datoz hiru Erregeak.

Lehenengo bila,  
Hilbeltza edo ta Urtarrila,  
denontzat ona gerta dadila.

2 Bigarrenkoa txarra ta hotza,  
Otsaila izenez eta da motza.  
Bostean dugu Santa Ageda,  
eta kopletarako bezpera.

Ihauteriak,  
eta berdin sagardotegiak,  
Garizumaren mezulariak.

3 Hirugarrena hemen da Martxo,  
txarra bada ez ardi ez artantxo.  
San Josetan eguzkia bada  
bete-beteen sartuak gara

Udaberrian,  
kuluak Erromako zubian  
eta ondoren mundu guzian.

4 Laugarrenkoa da Apirila  
baserritarrarentzat Jorrraila.  
Hogeitabostean da San Markos  
eta xixa berriak ba datoz.

Mendi aldera,  
zakur ta ardiekin batera  
artzaiak gorantz dira atera.

5 Aurrera segiz, hau da Maiatza,  
loretan bitez zelai ta baratza.  
Ta ez bada giro egokia  
berriz erre beharko aulkia.

San Ixidrori  
otoitz eta erregu berari  
izan dezagun euri ugari.

6 Seigarrenkoa orain heldu da  
Ekainarekin datorkigu Uda.  
Gure kukua zaigu mututu  
San Pedroz eginez azken —ku-ku—

San Juanetan:  
Su ugari bidegurutzetan,  
eta oporrak ikastetxeetan.

7 Uztaila da opor garaia,  
arazo denak ahaztutzen saia.  
Bildurrik gabe —gora San Fermin!  
zezenaren aurrean hotsegin.

Ta Santiotan  
edo berdin San Inaziotan  
parranda gauez, eguna lotan.

8 Ta abuztuko uda beroan  
jarraitzen dugu jai-festa giroan.  
Batzuk bertan besteak kanpora,  
baina hauxe dizuet gogora:  
Euskal Herrian  
hobe bertan Aste Nagusian  
Gasteizen, Bilbon nahiz Donostian.

9 Uda lehorra, gozo-beroa  
Iraila dator eta ba doa.  
Udazkenean sartu garenez  
lurra estali zaigu orbelez.  
Baserritarrak:  
bildu onddo, ur eta intxaurrak  
ta eskolara gazte ta haurrak.

10 Hamargarrena dugu Urria,  
uso eta tortolen galgarria.  
Udazkeneko hego haizeak  
ximeldu ditu piku hezeak.  
Txistu ta irriz  
artzaiak menditik bueltan berriz  
belar motxaren gose egarriz.

11 Hazi hila da, hazi aroa  
hamaikagarrenkoa Azaroa.  
Gaua luzatu eguna moztu,  
eguraldia zeharo hoztu.  
San Martinetan  
Txerriak hil ta gazikutxetan  
neguko jana baserrietan.

12 Azkenekoa da Abendua  
eta berarekin dator Negua.  
San Nikolas eta Santo Tomas,  
elurrezko makina bat jolas.  
Eta Gabonak  
direnez guztioi zorionak!  
Agur Urte Zahar ta esker onak.



# Amari

1989

---



“... ta falta bada, etxea ere dago triste eta hutsa”.

1 “Iparragirre abila dela”  
harturik aire moduan,  
bertso berriak ama xaharra  
dudala nire buruan  
lasai ta soseguan  
baina asmo seguruan  
jarri nahi ditut bihotzez  
ondoren kanta ahal izateko  
berari pozaren pozez.

2 Hasteko zerbait esan nahi nuke  
hain tentatua bainago,  
goraldu arren ahal den gehien  
ziur dagola gorago.  
Esan nahi nuke klaro,  
izan dela esklabo,  
guri eman ez guzia,  
eta hargatik azala ere  
dauka ximurtzen hasia.

3 Seme alabak hamaika gara  
beste bi galduak aurrez,  
gaztetasunak galdu zituen  
urte gutxitan hain errez.  
Apaindu gabe urrez,  
gaixorik ere barrez;  
hitz xamur eta eztiak,  
bere buruaz ahaztutzen da  
zainduaz beste guztiak.

4 Gorputz txikia, gorputz arina,  
bihotz handi ta zabala,  
harrokeririk bate gabea,  
umila eta apala.  
Emakume leiala,  
benetan zerbitzala,  
beregana bilduz denak,  
urtutzen ditu gure ezinak  
ta eztatzen gure penak.

5 Bere magala, magal gozoa,  
magal hesirik gabea,  
hainbat eraso goxatzen duen  
su ederreko labea.  
Da gure mirabea,  
tratuan xuabea,  
gurasoetan guraso.  
Hasarre denen pausa lekua,  
negar erreken itsaso.

6 Sufritu arren gorputz-arimaz  
negarrik ez agerian  
malkoa beti barrura eta  
irrifarra aurpegian.  
Goiz eta eguerdian  
edota gau erdian  
da familiaren funtsa;  
ta falta bada etxea ere  
dago triste eta hutsa.

7 Fede handiko emakumea  
hori ezin da ukatu,  
ta fede horrek soka guztiak  
dizkio egiz askatu.  
Eman eta ez hartu,  
inoiz ez du eskatu.  
Beti prestu barkatzeko,  
beretzat ez du ezer behar ta  
guztia du eskaintzeko.

8 Besteentzako bide zabalak  
eta beretzat estua,  
Jaungoikoaren lege guztitan  
zorrotza eta justua.  
Emakume prestua,  
egin du apustua:  
Saiatu besteengatik.  
Nahiz asko eman bere barrua  
ez zaio hustu oraindik.

9 Bere bizitzan lege bakarra  
lege maitasunezkoa,  
eta barruko bere indarra,  
beti indar fedezkoa.  
Zara hain gogozkoa,  
nahi eta nahiezkoa,  
konparazio moduan:  
Udaran itzal freskoa eta  
sukalde epela neguan.

# Asto terrorista

1989

Doinua: *Antton eta Maria.*

---

1 Hastera noakizu  
kontuak kontari  
gertakizun "polit" bat  
bait zaigu nabari:  
Asto terrorista bat  
hartuaz gidari,  
atzetik Joxe Leon  
eta Joxe Mari,  
hirurak izan zuten  
komerik ugari.

2 Oiartzungo herria  
Gurutze auzoa,  
Altzi Berritik zuen  
hartu abisoa:  
Ihesi joan zela  
asto zahar gaizoa.  
Joxe Leonek haruntz  
emanik pausoa,  
gaua ez zitzaion ez  
gertatu gozoa.

3 Gaueko hamarretan  
Altzi tontorrean,  
Joxe Mari ta biak  
korrika larrean,  
linternaz argi egin  
atze ta aurrean  
baina biak zebiltzan  
bide okerrean  
astoak sasoi zuen  
bere zaharrean.

4 Badoaz goitik behera  
zelai eta baso,  
eman zituzten Jaunak  
daki zenbat pauso.  
Azkenean astoa  
hantxe mantso-mantso,  
makila hartu eta  
zioten eraso,  
gogoan izango du  
hurrena akaso.

5 Astoa eramanda  
ikuilu aldera,  
Joxe Leon kotxean  
berriro etxera  
bide estu hartatik  
goitikan behera  
ta iritsi zenean  
bide-gurutzera,  
kotxetik azkar aski  
han zuten atera.

6 Paisanoz zeuden baina  
metraileta hotsak  
haiek ez ziren izan  
hain momentu motzak,  
zarpetatik helduta  
beitura zorrotzak  
estuturikan zeuzkan  
hagin eta hortzak  
etzanik lurra hantxe  
jo zuen kokotzak.

7 Esateko zer ziren  
han goiko argiak  
Joxe Leonek bota  
zituen egiak:  
Astoaren kontuak  
edo historiak.  
Ez zioten sinesten,  
haiek komeriak,  
eta bertara joan  
ziraden erdiak.

8 Altzi Berriri azkar  
emanikan jira,  
ate-joka indarrez  
leihorantz begira.  
Ta Joxe Marik zion:  
—Erotu al dira?  
—Guztiak derrepente  
lehertuko balira!  
Baina pistola hotza  
kopeta erdira.

9 “Manos arriba” eta  
“Ven tú también aquí”  
Zote anaia ere  
barruan izaki.  
Erderaz esan behar  
ongi edo gaizki:  
‘No sabe castellano’  
gajoak aitzaki,  
erakutsi zioten  
pistolaz ederki.

10 Nahiz azkar jarri biak  
lurrean etzanta,  
ikusi zuten haien  
“terrorista” planta.  
Berriro sartu zuten  
ondoraino hanka;  
bati ta besteari  
esanik “levanta”  
atzera kotxectara  
“perdonen” esanta.

11 Lotsaz aldegin zuten  
halako batean,  
eta utzi zituzten  
bi haiek pakean.  
Joxe Leon etzanda  
bien bitartean,  
kieto pistolero  
bizkorren artean,  
han mugitzea ere  
bait zeukan kaltean.



12 Noizbait kendu zioten  
armazko ataka,  
ikusi egin behar  
gizonaren planta.  
Orain hitz dotoreak  
eta lehen zaunka,  
bihotz odol kolpeak  
taupa eta taupa;  
“jende” horrek lotsarik  
batere ez dauka.

13 Guztira ordu t'erdi  
han mugitu gabe,  
gure Euskal Herrian  
horrelaxe gaude.  
Egiteagatikan  
astoaren jabe,  
bizia eman zuen  
ia bere alde.  
Hau dena egia da,  
edonori galde.

# Retegi-Tolosa


1989

Finala 1989-V-7

Tantoz-tanto, Anoetan gertatu bezala

Doinua: *Juana Bixenta Olabe.*

---



Ea Retegik ontzen duen sake hau!

1 Igandea zen Maiatzak zazpi,  
Anoeta beterik gain ta azpi;  
finala zen: Retegi-Tolosa  
partidu ederrez genuen goza.  
Orain bertsotan,  
huraxe kontatzeko asmotan;  
hasi gaitezen beraz pilotan.

2 Erasungoa gerriko gorritz  
gerriko urdinez Tolosa berriz.  
Retegiri sakea juezak,  
aurreneko tantoa Tolosak  
ta nahiko errez:  
Eskubiaz atzera indarrez  
Retegik ezin jaso ezkerrez.

3 Lau eta batez hasieratik  
bi tanto lortuz Tolosak saketik,  
baina Retegi hasi da gogor  
ta bostnako berdinketa dator.  
Amezketarrak  
eta berdintsu erasundarrak  
parean zeuden bien indarrak.

4 Tolosarentzat seigarrenkoa  
hura zen sasoia, hura gogoal!  
Retegik dejada eskubira  
Tolosak bestea oin erdira.  
Eskuan mina  
sotamano batek eragina  
bukaerako bere ezina.

5 Izugarrizko eskubikada  
ta ondoren zabalera dejada;  
hurrengo biak errebotean  
sartuaz lehenengo botean.  
Dударик gabe  
biak ere indarrean daude  
hamar eta bost Joxanen alde.

6 Retegirentzat hurrengo bostak  
bukatu dira Tolosaren bestak.  
Hamarna berdin markadorean  
eta indarrak berriz parean;  
hori aukera!  
Dejada ordea txapapera  
eta Tolosa berriz aurrera.

7 Beste bi tanto eginik sakez,  
hurrengo Retegiren huts batez.  
Bi paretak Tolosak kanpora,  
eta Retegik pilota gora  
jo goiko txapa;  
berriz amezketarraren txanpa  
Tolosa pozik, Retegik xanpa.

8 Tolosak saka, gero dejada,  
eta hutsa ere tanto izan da.  
Saketik hemezortzigarrena,  
Tolosak bentaja nabarmena.  
Eskubiz gogoz  
sartzen da atzeratzeko asmoz,  
ta goiko koltxoira sotamanoz.

9 Retegik falta ezker dejadaz,  
hogeigarrengoa eskubikadaz.  
Estutzen doa bihotz taupada,  
Tolosak dejadari dejada.

Azkenak jaunak!  
Bukaturik zeuden ia lanak,  
zutik jarrita txaloka danak.

10 Hamabitikan hemeretzira  
errenkan Retegik eginak dira.  
Hamalagarrenean odola  
Tolosa eskutik dariola;  
nahi eta ezin,  
nekatua eta eskuan min,  
txapelak behar dio aldegin!

11 Gehiagorikan ezin eskatu,  
Tolosak tantorik ezin bukatu,  
nahiz ezkerrez eta nahiz eskubiz  
dejada bota zion bi aldiz,  
baina alferrik,  
Retegik bazedukan indarrik  
ez zuen eman pauso okerrik.

12 Azkenekoa eskubiz jota  
Tolosak errebotera pilota.  
Hogeitabigarrena horrela,  
Nafarroatik ihesi txapela,  
eta gaurkoan  
bezala Tolosaren kaskoan  
geldi dadila urte askoan.

# Ihesi joan zaidan maiteari

1989

Doinua: *Lagundurikan danoi.*

---



1 Hego haize epelak  
darabil urritza,  
nora ezean berdin  
gaur nire bizitza.  
Nahiz alferrikakoa  
izango den hitza,  
mintzatu nahi dut bertsoz  
bertsoz nahi dut mintza,  
niregandik joanik  
zergatik zabiltza?

2 Neguak dakar hotza,  
udarak beroa,  
trikitixak atzetik  
bere panderoa,  
ta lehenak oraina,  
orainak geroa;  
zu nire bizia ta  
zu nire gogoa,  
horregaitik oraindik  
zure bila noa.

3 Zu nire argitasun,  
nire bizi-poza,  
nire osagai epel  
eta aproposa;  
zurekin nahi dut bizi  
ta zurekin goza,  
nahiz eta bi izaki  
bat bakarra osa;  
arantzez betetako  
perfume-larrosa.

4 Baina zertan perfumez  
estali hiratsak?  
Zertarako itxura  
pobre aberatsak  
ta txarolez estali  
oinetako hautsak?  
Zertarako asmoak  
eta esperantzak  
nigan urrun badira  
gaur zure urratsak?

5 Oilar isats harroak  
kukurruku dio,  
edertasunak eta  
indarrak balio,  
atzapar eta gandor  
tentea medio;  
lehendik irakatsi  
izandu banio...  
Orain besterik ezin  
ta diot adio.

6 Pikondoan txolarra  
ari da mokoka,  
pikorik piko dio:  
—Hau duk hau bikota.  
Beti gozoagoko  
bat nahi luke topa.  
Nahiz ta ondorengo hau  
ez dizudan opa,  
kontuz erori gabe  
tiro batek jota.



7 Izar argitsuena  
zinen ilunpean;  
aterpe atsegin ta  
gozo, euritean;  
sukalde epel, izotz  
eta hormatean.  
Bizi nahi nuen beti  
zure kerizpean.  
Niregandik zergatik  
zaude apartean?

8 Odol hustuta nago  
hustuta bihotza,  
betirako sartu zait  
barrura izotza;  
daukadan sentipena  
sentipen arrotza:  
Oihartzun gisa dator  
hilen ezkil-hotsa;  
gorputza bizirik ta  
arima hil-hotza.

9 Nora nire bideak  
ta nire urratsak?  
Ifarrrik aurkitzen ez  
du nire orratzak.  
Larrosak ihesi ta  
niretzat arantzak,  
ilundu zait arima  
hauek une latzak!  
Deseginikan nauka  
etsipen garratzak.

10 Bertso hauek zugana  
iristen badira  
egin ezazu arren  
niregana bira.  
Eta hau baldin bada  
gure despedida,  
gureak ezin badu  
eduki segida,  
zorion denak egiz  
dizkizut desira.

# Esnatzerakoan

1990

Doinua: *Betroiarena.*

---



1 Zintzarri hotsarekin  
berriro mundura,  
jaikitzeako ordua  
azkar heldu da,  
bukatu da gaueko  
ametsen lilura,  
ezin esnaturikan  
betiko modura,  
hainbat duda-muda  
eta arrenkura,  
ideiak burura:  
Hau, hori ta hura.  
Komunera nihoak  
hau pixagura!

2 Gaua gertatu ohi zait  
benetan murrizta  
eta jaiki beharra  
hau duk langintza!  
Ireki eta itsi  
begiak dabilta,  
behin eta berriz tinko  
barrua zait mintza:  
—Hola al zabilta?  
Entzun nire hitza  
nahi baduzu ditxa  
hona hemen giltza:  
Estima eta goza  
zazu bizitza—

3 Zakur zaunkak aurrena  
datoz belarrira  
eta begietara  
argi dizdira,  
dagoeneko norbait  
lanean ari da  
tirriki-tarra hotsak  
entzuten bait dira;  
ordua begira  
nahi nuke sikira  
hirurak balira!  
Ta berriz naiz jira  
tapakipean sartuz  
ohe erdira.

4 Burukia hartuta  
masailaren kontra  
postura egokian  
berriz naiz koka,  
jaiki-ez jaiki honek  
utzi ohi nau jota  
ta gelditzea ez zait  
batere inporta,  
gustora nago-ta  
niretzat bikoka  
hau duk hau konforta!  
Mantarik ez bota,  
lantegian gaur ere  
a zer porrota!

5 Gauari hartu diot  
ustetan topea  
halere jaikitzekeo  
nabil torpea,  
falta zait animoa  
ta borondatea,  
bertan gelditzen banaiz  
niretzat kaltea,  
amaituz epea  
hobe irtetea,  
altxa ta pakea,  
baina hau nekea!  
Zenbat maite zaitudan  
ohe maitea!

6 Maindirezko kate hau  
lotura epela  
baina jartzen nau triste  
eta goibela,  
zergatikan ote naiz  
hain kristau motela  
eta gizatasunez  
eskas ta ustela?  
Entzun hau bestela:  
Maite dut sabela,  
bete ohi dut sakela  
hornituz pardela,  
jakinik lur hezeak  
jango nauela.

7 Burua ilun eta  
odolak irakin  
kanpoan argi eta  
ni esna ezin,  
zertan egiten diot  
egunari muzin?  
Baikor izan nahi nuke  
ta nola ez jakin,  
behar diot ekin  
eta jokatu fin,  
dezadan ahalegin!  
helburu batekin:  
argitu nadin egun  
sentiarekin.

8 Oierren esku-oinak  
ta masail guriak,  
Ekainen irrintzi ta  
dantza-aldiak,  
Morroskaren irudi  
ta begi handiak  
nirekin dauzkat beti  
hiru aurpegiak;  
nahiz eta erdiak  
hor nire egiak  
poz eta zoriak  
gaueko argiak,  
sendatzen dizkidate  
nire zauriak.

9 Orain beste erdiak  
daitezen guziak,  
hautsiz gauaren muga  
eta hesiak:  
Ez al nau behar Euskal  
Herri nahasiak  
zelai ta sorotzeko  
malkar ta sasiak?  
Ahantz ahuleziak  
ta nagi-auziak  
bazter maleziak  
Jaunari graziak;  
jaiki nadin merezi  
du ta biziak!

10 Gaur ere jaikitzeko  
zenbat gogoeta!  
horretarako ere  
behar dut beta,  
nahikoa egondu naiz  
ohean gordeta  
beraz buka dezadan  
gaurko berriketa,  
gaindituaz seta  
jaiki naiz eseka  
lo gozoz aseta,  
non neukan arreta?:  
Berriz ohera noa  
jaia da eta.



# Bakarrik goza ohi dugun festa

1990

Doinua: *Juana Bixenta Olabe.*

---



- 1 Kontxez nindoan egun batetan  
jarri zitzaizkidan nire tripetan  
heste guztiak mugimenduan  
eskalaren lehenengo graduan.  
Arazo latza  
zertorkidala emanik antza,  
berebilari bosgarren martxa.
- 2 Presaren presaz azeleratuz  
errebueltak ezker aldetik hartuz.  
Mutilak hura kakagurea!  
aldatu zen nire kolorea.  
Eutsi beharko  
nahiz kosta izerdi eta malko,  
izan nituen komeri franko.
- 3 Kontu ta kontu ordu erdi bat  
azkenerako nintzen "prit" eta "prat".  
Behin koheteak hasi ezker  
gauza onik ez nuen espero.  
Erne mutilak!  
Piztuz gero alarma-bonbilak  
han behar zuen laster opilak.
- 4 Noizbait etxera iritsi nintzen  
ta deustarako denborarik etzen.  
Komunera zuzen-zuzenean  
intentziorikan onenean.  
Kakalarria!  
Uste ez nuela etorria  
izan zen trantze izugarria.

5 Galtzak askatu, behera jaitsi,  
atzea komunari erakutsi;  
nirekin ez da inoiz izutu  
hartu ohi nau gozo eta mutu.  
Nire poltrona!  
Eser-leku eroso ta ona,  
—kaka zuretzat tori komona.

6 Lehendakari Jaun baten moduan  
eseri nintzen leku seguruan.  
Aldizkaria falta ordea,  
andreak berriz ere gordea.  
Harturik “Sunsik”  
ez zen errebista, txanpu baizik,  
besterik ez ta nengoen pozik.

7 Lehen ehun aldiz irakurria  
eman nion errepasu berria.  
Konzentratu nintzen lanerako  
goitik behera zetorrenerako  
tirripitina  
eusten egin nuen ahalegina  
hargatik neukan tripako mina.

8 Begiak itsiz indarka beraz  
ez zetorren ez uste bezain erraz,  
nonbait nenbilen lehor antzean  
ta egonik holako trantzean,  
bultza ta bultza!  
Hurrengo kolpea ere hutsa,  
erdia haizea, erdia putza.

9 Aurrera segiz ez nuen etsi,  
ezinezkoa zenik ez sinetsi.  
Horrenbeste saiatu ondoren  
nahiko nekez baina ba zetorren.  
Ze gozamina!  
Eta barrenentzat atsedena,  
deskargatzean sentitzen dena.

10 Egun hartako nire nekea  
bihurtu zen sosegu ta pakea;  
ba zihoan poliki-poliki,  
bukaera ba zetorren aurki.  
Lau bat kanasta  
egin nituen "plisti" ta "plasta"  
atzeka ere barrura "zasta"!

11 Gauzak horrela, amaitu nuen,  
berri-berria bezala nengoen.  
Gelditu nintzen bapo ta lasai  
eta garbituz zikin ta usai,  
katetik tira  
aurrez trofeoari begira,  
kilo t'erdi jo nuen begira.

12 Hamar minutu goitikan jota,  
bost badira ere ez du inporta.  
Bakarrik goza ohi dugun festa,  
gauza hobeagorikan ezta!  
Hortan ahalegin  
egiten dugu guztiok berdin.  
Agur komuna eta on egin!

# Aita, zergatik zaude negarrez?

1990

Doinua: *Leiho ertzetik entzun dezaket (Egaña).*

---



“Nere bizitzan, seme maitea, egina naiz lana franko...”

1 Aita, zergatik zaude negarrez  
etxe aurrean bakarrik?  
Ez duzu eman nire ustetan  
sekulan urrats okerrik.  
Zeruan ere ez al da argi  
egiten duen izarrik?  
Ez al daukazu indarrik?  
Eta pozaren pizarrik? (bir)  
Zuk ez zenuen bada merezi  
horren bukaera txarrik;  
nire aurrean era horretan  
aita ez egin negarrik! (bis)

2 Nire bizitzan, seme maitea  
egina naiz lana franko,  
zenbat miseri! Zenbat izerdi!  
Eta zenbat negar malko!  
Pronto nengoen gau eta egun  
edozer lanetarako,  
dena nuen etxerako,  
etxekoen onerako. (bir)  
Urterik urte, kezkarik kezka  
ahitzen joan naizelako,  
ailegatu naiz zahartzera eta  
ez nauzu ezertarako. (bir)

3 Gurdi gainean zaude jarrita,  
arrimurako makila,  
begiak busti-bustiak hara  
ta hona zerbaiten bila;  
gizon bizkorra izana zara,  
kurajetsu ta abila;  
gaur berriz zurbil-zurbila  
eta ez zaude trunkila. (bir)  
Goruntz begira zeruratzen dut  
zuretzat otoitz isila:  
Jainkoa, gizon honen bihotza  
azkar sendatu dadila. (bir)

4 Zelaiak larre, garoa ote,  
artasoroak belazi;  
gure baratzen barazkirik ez  
ta lapaitzak dira hazi;  
mizpirondoak eta urritzak  
bilaka zaizkigu sasi.  
Ni hola ezin naiz bizi,  
egiten dizut garraisi: (bir)  
Penaren penaz ni hil ez nadin  
semea lanean hasi,  
hainbeste eman digun lur honek  
ez bait du hori merezi. (bir)

5 Baserria zen zuretzat eta  
zu beretzat izan zera,  
baina urteak ezin ditugu  
berriz itzuli atzera;  
zure errua ez da etxea  
baldin badoa galtzera.  
Ba duzu beste aukera,  
eta horrela hobe da: (bir)  
Hau utzi eta etorri zaitez  
gaur bertan gure etxera,  
ta igandetan zatoz baserri  
zaharra bisitatzen. (bir)

6 Lur koloreko baserri zaharra  
noizbait txuri ta gorria,  
izan zen denon kabi eta gaur  
du egoera larria,  
nire antzera gainbehera dator  
daduka bizi urria,  
ez al da negargarria?  
Ez dut nahi zure berria. (bir)  
Baserritxo hau nola izan den  
nire bizi-iturria,  
lurrak irentsi gaitzala biok  
ni ta neure baserria. (bir)

7 Usain gozoko larrosak ere  
aski arantza zorrotzak,  
bizitzan ere une gozoen  
ondoren une mingotsak;  
baina Martxoko eguzki onak  
urtutzen ditu izotzak,  
eguteratzen laiotzak  
luzatuaz egun motzak. (bir)  
Beraz isildu bitez segidan  
zure gaurko negar hotsak,  
zorian piska-piskat bederen  
ez al du zure bihotzak? (bir)

8 Isildu nadin gaur ez eskatu  
inolatan ere neri,  
lehen ere gorde bait dut barruan  
negar ta pena gehiegi,  
nik hasitako bide hortatik  
inork ere ez dit segi;  
ni nolatan lasai geldi?  
Ez litzateke zilegi. (bir)  
Nire bihotzak ez du ez pozik,  
daukat triste eta eri,  
zahartzaroan gelditu bait naiz  
ez baserri ta ez sendi. (bir)

9 Egi osoa ez duzu esan  
etxeakoak hemen gaude,  
gainera gertu edozer gauza  
egiteko zure alde.  
Baina gu ere ez ote gara  
geure buruaren jabe?  
Mesedez isilik zaude!  
Ez izan umeen pare. (bir)  
itsas gaiztoa bihurtu dadin  
lasai, gozo eta bare,  
konforma zaitetz zeure bizi-  
hola nahigabetu gabe. (bir)



10 Eskerrik asko, arrazoi duzu,  
zergatik jarri horrela?  
Malkoz bor-borka negar eginez  
edozein haurtxo bezala.  
Baina zuk ere uler ezazu  
urtetan sartu naizela,  
gorputza daukat motela,  
etorkizuna goibela. (bir)  
Nik orain behar dudanez zuen  
maitasunaren epela,  
bisitatzera zatoz maizago  
edo hilko naiz bestela. (bir)

# Errenteriarri

1990

Doinua: *Ai gure antzinako.*

---



1 Herri bitxi honeri  
jarriaz arreta  
doa berriketa,  
axaletik bederen  
hona azterketa.  
Izenarekin hasiz  
nire gogoeta  
horrekin ere saltsa  
omen dute eta:  
Batzuk Errenteria  
batzuk Orereta.

2 Beti ezagutu dut  
herri hau obretan  
ez diot brometan,  
sar gaitezke berebil  
ta guzi kunetan,  
buztina ta lokatza  
kale bazterretan,  
pintadak kristalean,  
pintadak paretan;  
herri garbiagoak  
ba dira planetan.

3 Bide ta espaloiak  
ez daude ederki  
edozeinek daki,  
zazpi urratu eta  
bakarra eraiki,  
zulo bat tapatuta  
hamabost ireki,  
“zona catastrófica”  
izendatu aurki,  
bestela bertakoak  
zaituztet erruki.

4 Etxe zaharrak eta  
erdi eroriak  
dira ugariak,  
ta leku egokirik  
ez du gazteriak:  
Kultur etxeak edo  
sagardotegiak,  
zeinen zain ote daude  
jaun agintariak?  
Xenpelarrek piztuko  
balitu begiak!

5 Hasi ezkerro hobe  
denak esatea  
ez bada kaltea,  
ez da ez ona herri  
honen aldartea:  
Errekak kiratsa ta  
papelerak kea,  
non da Udaletxea?  
Non da Alkatea?  
Noren eskutan zaude  
Herri zahar maitea?

6 Donostitik bazatoz  
presaka autoan  
frenatu sekoan,  
karabana bait doa  
abio lentoan,  
ordu erdi bat pasa  
behar ataskoan,  
eta munizipalak  
zapela kaskoan:  
Saltsa beheko kalean  
ta berak goikoan.

7 Munizipalak daude  
berrogeitik gora  
dizuet gogora,  
ta ez dira ageri  
inondik inora,  
hargatik gaizkileak  
dabiltza gustora:  
Orain radio-kaseta  
kotxea gerora;  
non dago hauengandik  
genuen mejora?

8 Euskalduntze lanetan  
aspaldi zen hasi  
oihu eta jauzi,  
baina hamarretik bik  
ez dute ikasi,  
ta dakitenek ere  
erderaz garraisi,  
soro behar lukeena  
oraindikan sasi;  
hiru euskaltegi ta  
erdera nagusi.

9 "Gora Euskal Herria"  
abertzale lema,  
aspaldiko dema,  
horretan ere dabil  
herri hau herrena,  
gure Errenteriak  
dadukan problema  
ba noa esatera  
ta ez al da pena:  
Hauteskunde garaian  
Pesoe aurrena.

10 Soilik aipatu ditut  
alderdi baldarrak  
eta zoritxarrak,  
indarra izan dezan  
nire deiadarrak;  
ea zelaitzen diren  
bertako malkarrak  
ta irriak estaltzen  
dituen negarrak,  
hainbeste merezi du  
errenteriarrak.

# Gipuzkoako finala

1991

1991eko Gipuzkoako Txapelketa oso hurbiletik jarraitzea tokatu zitzaidan juraduko partaide nintzenez. Zortzi finalistei bertso bana jarri nien, baina, beraien ahotik jarriak bailiran.

---



Lehen ere baziren txapeldunak.  
Mattin eta Uztapide, Oiartzunen.

*Mendizabal:*

8 Mila bederatzirehun  
larogeita hamaika,  
historirako jarri  
behar nuen marka;  
doinu berri-berriak  
nahiz ditudan kanta  
eta faboritoei  
behar nien zaunka,  
halere zortzigarren,  
zakurraren kaka!

Doinua: *Zer da gaur Donostian.*

*Olaso:*

7 Hankamotz ta luzeak  
zeharo ahaztuta  
primeran nabil lotsa  
guztiak galduta;  
arkume isats motz bat  
lepoan hartuta  
Rufinongana noa  
mereziko du-ta.

Doinua: *En una jaula de oro.*

*Murua:*

6 Egia esan ez nuen egin  
potorikan aspaldian,  
bat egin behar eta huraxe  
txapelketaren erdian,  
arriskatuta bederatziko  
bat kantatu behar nian!  
Preparatuta etorriko naiz  
hurrengo txandan agian.

Doinua: *Goizean goizik.*



*Lizaso:*

5 Txapeldun nintzen, gero bigarren,  
orain bosgarreneraino,  
nik honelako jipoi gogorrik  
ez nuen jaso gaurdaino,  
burua lauso ta ilun daukat,  
bi begiak dauzkat laino;  
eta gainera Peña txapeldun  
holakorik egundaino!  
Ez dut gehiago parte hartuko  
ez duzue uste baino.

Doinua: *Bizia ez da nehoiz egoiten.*

*Sarasua:*

4 Gaiak esanda egin ohi dugu  
luzitzeko hainbat saio,  
betiko gauzak errepikatzen  
dozena bat papagaio.  
Lehen txapelketak maite nituen  
eta orain, zer arraio!  
Morboagatik ez irtetea  
nuen askoz ere nahio,  
neuk zer nahi dudan ere ez dakit  
baina, zer egingo zaiot!

Doinu: *Mutil koskor bat.*

*Euskitze:*

3 Poto bezala kontatu dute  
lapsus garbia izanta,  
ezertarako ez ditut nire  
txaketa eta korbata;  
hirugarrenengo postu hontatik  
inola ezin aparta  
eta gainera Sarasuaren  
txorradak behar aguinta,  
irabaztera etorri eta  
eman didate galanta.

Doinu: *Sentimentua sartu zitzaidan.*

*Egaña:*

2 Goizeko seirak dira, amatxo  
hemen nabil blisti-blasta,  
faborittoa nintzen ta ez dut  
demostratu nire kasta,  
bi puntu aluk dute errua,  
txapela ezin dut dasta,  
erori egin naiz, blausta!  
Peñak poltsarekin plasta! (Bis)  
Eta Laxaro, eskolarteko  
gaiekin ez al duk basta,  
piskaka baina, galtzen ari da  
Egañaren arrakasta.

Doinua: *Leiho ertzetik.*

*Peñagarikano:*

1 Nire kontura egiten dute  
hauek algara nahikoa,  
nik hala ere maitatzen ditut  
guztiak alajainkoa!  
Horregatikan ez pentsa gero  
naizenik hain lapikoa;  
hona hemen mutikoa  
Ranboren antza handikoa. (Bis)  
Ba dut kadeta, ba dut pisoa,  
begira nire tipoa...  
Orain gainera txapel ta guzi  
txiribitiflautikoa. (Bis)

Doinua: *Maitasuna da bizi izateko.*

# Porrusalda - I

1991

---

## Errealari

1 Erreala harturik  
kopletarako gai  
Erreala harturik  
kopletarako gai  
gaur haren jarraitzaile  
ez nuke izan nahi,  
ai, oi, ai,  
ez nuke izan nahi,  
Erreala harturik  
kopletarako gai.

2 Lehenago txapeldunak,  
egun lotsagarri,  
lehenago txapeldunak  
egun lotsagarri,  
ligan ta kopan berdin  
estu eta larri  
ai, oi, ai,  
estu eta larri,  
lehenago txapeldunak  
egun lotsagarri.

3 Kanpotarrentzat nahiko  
dirua badago  
kanpotarrentzat nahiko  
dirua badago,  
ta bertako gazteen  
ametsak akabo,  
ai, oi, ai,  
ametsak akabo,  
kanpotarrentzat nahiko  
dirua badago.

4 Euskaldunak Madrilen  
Donostian beltzak,  
Euskaldunak Madrilen  
Donostian beltzak,  
ez al dira benetan  
joera traketsak,  
ai, oi, ai,  
joera traketsak:  
Euskaldunak Madrilen  
Donostian beltzak.

5 Bartzelona dut orain  
gustoko taldea,  
Bartzelona dut orain  
gustoko taldea,  
batetikan bestera  
bazegok aldea,  
ai, oi, ai,  
bazegok aldea,  
Bartzelona dut orain  
gustoko taldea.

# Porrusalda - II

1991

---

## Politikoei

1 Politikoeek dute  
halako ardura  
politikoeek dute  
halako ardura,  
laguntzak predikatu  
ta dena zakura  
ai, oi, ai,  
ta dena zakura,  
politikoeek dute  
halako ardura.

2 Zortzi miloiko fitxa  
jaunak ez da broma  
zortzi miloiko fitxa  
jaunak ez da broma,  
dietak, bazkariak  
eta kotxe ona  
ai, oi, ai,  
eta kotxe una,  
zortzi miloiko fitxa  
jaunak ez da broma.

3 Promesa latzak eta  
mejorak agindu  
promesa latzak eta  
mejorak agindu,  
horien zain bagaude  
gureak egin du  
ai, oi, ai,  
gureak egin du,  
promesa latzak eta  
mejorak agindu.

4 Politikak badauka  
xarma berezia  
politikak badauka  
xarma berezia,  
lanean ez da jartzen  
hortan ikasia  
ai, oi, ai,  
hortan ikasia,  
politikak badauka  
xarma berezia.

5 Hemezortzi alderdi,  
beste hainbat talde  
hemezortzi alderdi,  
beste hainbat talde,  
alfer pila galanta  
mantentzeko gaude  
ai, oi, ai,  
mantentzeko gaude,  
hemezortzi alderdi,  
beste hainbat talde.

# Jose Barrionuevo

1991

---

Jose Amedoz hitzegin gabe  
ez da pasatzen egunik,  
antzerkitxoak lasai aurrera  
jarraitzen baitu oraindik.  
Ez dut espero Barrionuevok  
hau argituko duenik,  
horrela pentsatzen dut nik,  
hor ez baitago gizonik. (bis)  
Inor ba ote GALen atzean  
nor dagoen ez dakinik,  
Barrionuevo ministro ohia  
zegen lekuan egonik (bis).

# Hogeita hamalau urte

1991

Doinua: *Ai gure antzinako.*

---





1 Hogeita hamalau urte  
oraindik gaztea  
zen nire ustea  
eta pentsatu nuen  
korrika hastea,  
nire asmoa ez zen  
bazterrak nahastea  
hala ere oihuka  
neukan emaztea:  
—Lehen lan gutxi dauzkak  
ta orain bestea.—

2 Korrika ibiltzea  
ez zela erraza  
eman nion antza,  
hasi ordu estutzen  
zitzaidan arnasa,  
nire gorputzarentzat  
ez zen ez jolasa  
ta berehala nintzen  
gurpileta pasa,  
bizikleta erosi  
lehenbiziko gauza.

3 Igandetan ziklistek  
zuten ibilera  
gora eta behera  
ikusteko aspaldi  
banuen aukera,  
nolako bizikletak!  
nolako jazkera!  
eta gu gutxiago  
izango al gera?  
Zertarako daukat nik  
Lemond-en tankera?

4 Bazihoan aurrera  
beraz proiektoa  
berebizikoa!  
Bizikleta erosi  
berri ta petoa,  
mailota ta kulote  
traje konpletoa,  
ipurdia atzean  
ta tente lepoa;  
ea non dagoen ba  
Tourmalet puertoa?

5 Zikloturista nintzen  
ni ere bilaka,  
baginen milaka,  
jai hartan irten ginen  
kalera pilaka.  
Azkar jarri ninduten  
aurretik tiraka,  
biderik zelaiena  
niretzat aldapa,  
zerbait nintzela uste ta  
zakurraren kaka!

6 Pentsatuaz: —neri hau  
ez zait komeniko  
utzi eta kito,  
bizikletan gehiago  
ez naiz ibiliko—  
Ordu erdi baino lehen  
behar nuen ito,  
birikak estu eta  
bihotzetik zisko,  
baina atera ordu  
ez nuen etsiko!

7 Pelotoian serio  
denak jota kea  
trinko paketea  
ezin hartu elkarren  
arteko tartea,  
hango frenazo eta  
hango derrapea,  
minberaturik neukan  
ipurterrapea,  
eskerrak nenbilela  
moralez fuertea!

8 “Jefe de filas” tako  
ez nuen balio  
mila demonio!  
Zertarako aritu  
prestatzen propio?  
Besteek begiratzen  
zidaten serio,  
bakoitzari berea  
nonbait dagokio:  
Izendatu ninduten  
denen gregario.

9 Atzetikan jarraituz  
ahal nuen modura  
jaunak zer zen hura!  
erretiratutzeko  
zenbat duda-muda,  
pajara latza eta  
hura negargura!  
bukatzera zihoan  
nire abentura,  
min eginda joan nintzen  
kuneta zulora.

10 “Ocho” egina neukan  
aurreko gurpila  
hura zen nahaspila!  
Odoletan belaunak  
eta txonkatila,  
izerdi tanta hotzak,  
aurpegi zurbila,  
lurretik ezin altxa  
nengon erdi hila,  
baina ez ote dator  
inor nire bila!

11 Ondorio batzuek  
atera beharko  
ta badira franko,  
ez zait gaizki etorri  
eskarmenturako,  
bizikletan gehiago  
ez naiz aterako  
nahiz ta joera izan  
kiroletarako,  
sofan hobeto nago  
exerita bapo!

# Amonak 90 urte

1991

Sunbillan bazkaria familia osoak.

1991-VI-2

Doinua: *Amodioa gauza tristea*



“Paradan hazi, gero Lekunen, ondoren Koskotenera...”

1 Esan ziguten berriz Sunbillan  
bazkari haundi bat zela,  
denak bildurik, gaur hamar urte  
egin genuen bezala.  
Ez gaude gaizki elkartuz gero  
sendi osoa honela,  
hauxe da giro goxoa eta  
hauxe da giro epela,  
pena bakarra eserleku bat  
hutsik geldituko dela.

2 Paradan hazi, gero Lekunen,  
ondoren Koskotenera,  
gure amonak eginak ditu  
hainbat lan ta ibilera.  
Larogeita hamar urte baditu  
gorputzez nahiko minbera.  
Denak amona zoriontzeko  
hemen elkartuak gera,  
eta hemendik irtenda ere  
jarrai dezagun batera.

3 Beraz, dezagun pozaren pozez  
egun haundi bat igaro,  
elkarte honek jarrai dezala  
era honetan luzaro;  
eraman-ezin ta inbidiak  
bazter ditzagun zeharo,  
eta horrela izango dela  
kasikan seguru nago,  
zeru erditik begira ama  
ere gurekin baitago.

# Hara Pregoia

1991

Doinua: *Betroitarena.*

---

1 Bordan afaldu gendun  
lasai eta bare  
baina azkenerako  
bastante grabe:  
Inor ez ginen geure  
buruaren jabe,  
neu ere galbidean  
eta lotsagabe.  
Dantza non zen galde,  
barrura xuabe,  
sarrera debalde,  
dena gure alde;  
zazpirak arte zenbat  
kalamidade!

2 Dantzan egiten gendun  
denak diferente,  
ganorerik ez baina  
burua tente,  
ez nekien neukanik  
hainbeste aguante  
erdi mozkorturikan  
hamar atorrante.  
Denak elegante,  
nahiko baliente,  
ni dantzan dezente  
musikaren menpe,  
baina ez andre eta  
ez amorante.

3 Jauzika jota fuego  
geunden irakiten,  
holakorik ez nuen  
igarro aurten,  
pista erdian gartsu  
hamar astakirten  
alkoholaren indarrez  
denetik egiten,  
hautsi edo eten  
giharreak hausten,  
bi hauspoak isten,  
behar nuen irten;  
probatu arte zer den  
ez da jakiten.

4 Mostradore aldera  
berriro itzuliz  
alkoholezko xurrupa  
behin eta berriz,  
ezpainetan irria,  
barruz triste aldiz,  
mingaina loditua,  
bi begiak diz-diz;  
neska bat jo begiz  
xarmanta zen egiz,  
haretxen inbidiz  
ta desio garbiz,  
estrategia pentsa  
sillan eseriz.



5 Txikitatik izan naiz  
mutil lotsakorra  
ez banengoen behintzat  
seko mozkorra,  
neretzat ligatzea  
beti da gogorra,  
hala ere izan naiz  
horretan baikorra.  
Aurrean altxorra  
neretzako, horra!  
mugikor zilborra,  
ahoa idorra,  
hortan ez nintzen dantzan  
bezain bizkorra.

6 Han zihoan zekorra  
gustoko larrera,  
ona izango al da  
bere jarrera!  
—Trabajas o estudias?—  
lehenengo galdera,  
ez nekien zer esan  
handikan aurrera;  
ba nindoan behera,  
farrez lehertzen bera,  
ni larri ostera,  
hura egoera!  
Lotsa ta errabia  
biak batera.

7 Baina neskak ez nindun  
horren gaizki hartu,  
nerekin solasean  
baitzen geratu,  
eta galdetu zidan:  
—Nahi al duk dantzatu?  
baina kontuz ez neri  
hankarik zanpatu—  
Indar denak batu,  
berriz pistan sartu,  
emeki elkartu;  
ze madarikatu!:  
Baltsean hasi eta  
rok-a bukatu.

8 Zer gertako zitzaidan  
ba nekien aurrez,  
hala ere ez nintzen  
egon beldurrez,  
pixkat estutu nuen  
baina derrigorrez,  
adornatu zitzaidan  
ingurua urrez,  
biak irribarrez,  
eta hitz xamurrez,  
balakuak errez  
ta hala beharrez  
dantzaldia bukatu  
zen zoritxarrez.

9 Bota genuen nahiko  
dantza saio latza,  
ia ezin genuen  
bururik altxa;  
dudarik gabe nintzen  
dantzari narratxa,  
hala ere lau orduz  
dantza eta dantza.  
Izerdi kiratsa,  
ihesi neskaxa  
niregandik martxa,  
hura zorigaitza!  
Orduantxe bukatu  
zen nere baltsa.

10 Konturatzeko berriz  
bakarrikan geunden,  
etxeratu nahi nuen  
handik lehenbailehen.  
Nahiz saiatu pasatzen  
ahalik ondoen  
guretzako neskarik  
salan ez zegoen.  
Zer egin ondoren  
pentsatzen nengoen,  
zegonez nabarmen  
esan nuen ozen:  
—Hemen alferrik gaude,  
etxera goazen!—

1 1 Neskari gabe erre  
beharko sasoia,  
azkenean gailendu  
baietz herdoia;  
zein arraio ote da  
honen arrazoia?  
Ez naiz horren baldarra,  
ez naiz nerekoia,  
ez naiz fanfarroia  
ta nago doi-doia,  
berdin da Idoia,  
berdin Amagoia;  
norbaitek maite banau,  
hara pregoia.

# Ttikitako beldurrak

1991

Doinua: *Mutil koxkor bat.*

---



"Eskerrak berriz xukatzen ziren  
udaberri amestian,  
begiak itsiz amets eginez  
barrutiko hariztian".

1 Nahiz eta nintzen gorputz-haragiz  
mutiko zail ta zimela,  
bakardaderik ez nuen maite  
bait nion beldur itzela,  
pentsatuz beti neri begira  
norbait gordeta bazela  
eta horretxek jartzen ninduen  
izuti eta tentela,  
astunegia bait zen gainean  
neraman beldur-fardela.

2 Beldurra nion gauari eta  
beldurra arrats beltzari:  
lokartzeko-re burua dantzan  
eta barrurantz kantari,  
halere soinu ta imintzio  
ttikienarekin adi.  
Beldur guztiak bistan nituen,  
beldur guztiak nabari,  
motibo gutxi lasaitzeko ta  
beldurtzekoak ugari.

3 Jende aurrean behar banuen  
agertu edo-ta mintza,  
egia esan huraxe ez zen  
neretzako zen langintza;  
lotsak, beldurrak eta izuak  
niregandik ezin zintza,  
hargatik baldar ginen mugitzen,  
totela genuen hitza,  
beti pentsatuz irrigarria  
ote zen gure baldintza.

4 Kaletarrari beldurra eta  
kalekeriei beldurra,  
inguru hartan lagun berriak  
biltzea ez zen xamurra;  
guretzat bait zen iseka eta  
guretzat irri maltzurra,  
gure jarrera lotsazkoa zen,  
jarrera buru-makurra,  
egia zenik ezin sinetsi  
baina ez zen ez gezurra.

5 Beldurra nion maistrari eta  
apaizari gauza bera;  
mamuak ziren bazter guztitan,  
mamuak gora ta behera;  
poz batek ziur beti zekarren  
beldur haundi bat parera,  
ta ttikitako gure bihotza  
izanik hain sentibera,  
nahi eta ere ezin genuen  
gure barrua sosega.

6 Beraz eskolan pasa genuen  
beldur eta izu franko,  
erderaz ezin ulertu eta  
gogorra zen guretzako;  
beldurra eta lotsatik gainez,  
estimaziotik flako,  
nere gogoak, asmo ta nahiak  
ez ziren eskolarako,  
baina, etxean hala nahi zuten  
ta obeditu beharko.


7 “Sakamantekas” nere atzetik  
ibili ohi zen askotan,  
bide ertzetan beste beldurrik  
ez genuen mutikotan;  
mamu ugari egunez nonahi,  
ta amets gaiztoak lotan,  
eskerrak garaiz hasi ginela  
txuriz jantzita pilotan,  
gogor eginez miseri denak  
kanporatzeko asmotan.

8 Heriotzari hura beldurra,  
beti hiltzeko beldurrez,  
ahal zen guztian eutsi minari  
etxekoei esan aurrez.  
Nahiz eta esan ez zela ezer  
ez nuen sinisten errez,  
noiznahi izerdi hotza kanpora  
noiznahi ixilka negarrez;  
ez nuen hil nahi, nahiz jakin noizbait  
behar nuela derrigorrez.

9 Gaxotasunei beldur galanta,  
beldurra minez jartzean,  
mundu osoa nire gainera  
beti holako trantzean,  
eta argirik ezin ikusi  
barruz dena iluntzean.  
Nahiz eta ezin nituen utzi  
beldur guztiak atzean,  
itxaropena banuen denak  
gainditzeko haunditzean.



10 Euritan ito behar izaten  
nuen eraso azpian,  
ito-larria euri zaparrak  
aurkitzen nindun guztian,  
euria eta malkoak nahastuz  
nere aurpegi bustian,  
eskerrak berriz xukatzen ziren  
udaberri amestian  
begiak itsiz amets eginez  
barrutiko hariztian.



# Ene barruko korapiloa

1991

Doinua: *Sentimentua sartu zitzaidan.*

---

1 Ene barruko korapiloa  
askatu ezinezkoa  
malkozko bertsoz kontatuko dut  
egia bezain ziertoa.  
Bizipen eder eta gozoa  
isil-minetan itoa  
ez bait dezaket goza bihotzak  
eskaintzen didan jokoa;  
nola ez nuen ikusten bistan  
neukan maitasun zepoa!

2 Patxadan, lasai bizi nintzena  
bapateko eromena,  
neskatxa batek nahastu baitu  
ene izaera dena.  
Zentzugabeko bilakatu du  
lehen zentzuzkoa zena,  
aztoratu dit ene burua,  
aztoratu dit barrena;  
ez dakit nola berreskuratu  
arestiko atsedena.

3 Beste ezeren beharrik gabe  
hain ederki bizi nintzan,  
senar leial ta guraso zintzo  
eta jator baten gisan.  
Baina nor berak nonbait ezin du  
agindu bere bizitzan;  
orain enetzat sufrimenduak  
nahiz nik errurik ez izan,  
burua ere ia galdurik  
begira nola gabiltzan.

4 Bihotza noiznahi jauzika daukat  
ta ezin dut errenditu,  
harengan baitut ene arnasa,  
gogo eta espiritu;  
eta bakarra naizenez ezin  
ninteke bitan erditu,  
ni haren bila ibili gabe  
zertarako dut aurkitu?  
Hutsa litzake hemezortzi bat  
urte izango banitu!

5 Udaberriko sukarra ote,  
gaztetako kalentura,  
baina gaitz hori nola ote zait  
adin honetan ingura?  
Ez dakit zer den, desditxa edo  
bihotz beteko mentura,  
biak batera sentitzen ditut  
tristezia ta lilura,  
ezin eskura baitut bihotzez  
hainbat maite dudan hura.

6 Ene bihotzak ez zuen behar  
orain hainbeste endredu,  
zertarako dut hainbat nahaste?  
zertan hainbat zoramendu?  
Baina maitasun kolpeak nonbait  
mugarikan ez omen du,  
eta atzera egin dezadan  
nabil bastante berandu,  
nahiz harengandik urruntzen naizen  
burutik ezin dut kendu.

7 Enetzat orain sentimenduei  
kasu egitea zail da,  
ene bizitza goitik behera  
guztiz bait dezake alda.  
Eta samina gerta liteke  
enetzat holako malda,  
salbatu nahi dut ene burua  
ta ez dakit nola salba,  
denborarekin, heldu bezala  
noizbait aldenduko al da!

8 Orain arteko ene bidea  
haren erruz da desegin,  
eguneroko egin beharrei  
taxuz ezin diet ekin;  
ta nik nahi ditud zelaiak berde,  
zerua garbi ta urdin,  
ene bizitza ezia zena  
une hontan ez da berdin:  
Harekin ezin bizi naiz eta  
hura gabe bizi ezin.

9 Fruitu gozoa, tentagarria,  
Paradisuko fruitua,  
sentitu nuen egunetikan  
bihotzez desiratua.  
Eta barruan gorde beharra  
betirako sekretua,  
hartu nuen ta ezin galdu dut  
harganako arrastua,  
baztertu ezin bi begi haundi  
horien begiratua.

10 Etzait komeni bihotz barruan  
maitasun hau babestea,  
ezin dut ase bihotz eriak  
egiten didan eskea,  
zerua dolu bihur dezake,  
pozkariora nahastea;  
baina ez pentsa erreza denik  
alde batera uztea,  
ikusi eta ukitu ezin:  
Maitasunaren tristea!

11 Ahaztuko al dut egun batean  
gaur ez baldin bada bihar,  
ene bihotzak ez bait dezake  
maitasun klase hau hausnar.  
Nahiz eta jakin inolaz ere  
ezin gintezkela elkar,  
non aurkituko beti hor nabil  
bide galduetan zehar,  
aurrean badut ezin begira,  
falta badut hura behar.


12 Ai! gizarteko loturarikan  
gabe biziko bagina,  
sosegatzeko egingo nuke  
bihotzezko ahalegina.  
Baina oraingo gozoa dena  
gerta ez dadin ozpina,  
dena barruan gorde beharrez  
haundia da ene mina:  
Guzti hau hari esan nahi eta  
inolaz esan ezina.

# Zertan behar dut sinestu?

1991

Doinua: *Amodioa gauza tristea.*

---



1 —Zugandik, ama, gau eta egun  
zerion otoitz murmurra:  
Lehendabiziko “Aitaren” eta  
Jaungoikoari beldurra,  
eta besteei eman geuk behar  
eta geneukan apurra.  
Nahiz, ama, zaren maitasunaren  
ttonttorra edo gailurra,  
haur izanikan, entenditzeko  
ez zen ez gauza xamurra.

2 —Jainkoa maite beharra duzu  
gauza guztien gaintik,  
ona delako eta Semea  
eman bait zuen gugatik.  
—Eta hainbeste maite gaitula  
nola jakin dezaket nik?  
Benetan zaila egiten bait zait  
zure dotrina oraindik:  
Ezagutzen ez dudarik, ama,  
nola maitatu ez dakit.

3 —Mingain garbia izan ezazu  
inoiz ez maldiziorik,  
ez erabili alferrik bada  
Jaungoikoaren izenik.  
—Baina mingaina haragizkoa  
eta gaiztoa izanik,  
oilartzen hasi orduko ez dio  
biraoa beste gauzarik,  
etxetik irten eta ez baita,  
ama, entzuten besterik.

4 —Hirugarrena, jai egunetan  
jai egin beharra degu,  
meza entzunaz, Jaungoikoari  
egin otoitz ta erregu.

—Baina eliztar asko ez dira  
maitasunaren eredu,  
kunplimenduak utzi daitezke  
ta maitasunari heldu;  
igandez guk jai eginda, ama,  
Jaunak, zer irabazten du?

5 —Aita ta ama eduki aintzat  
eta bihotzez maitatu,  
zure laguntza gurasoentzat,  
otoi, ez inoiz ukatu.

—Ta biak izan zarete nire  
pausaleku ta ostatu,  
zuenganako maitasun hori  
oraindik ez zait ihartu,  
ta hori hola ez bada, ama,  
hori bai dela pekatu.

6 —Lagun urkoa maita ezazu,  
haren morroi izan zaitez,  
inori txarrik ez egin inoiz,  
ezerez inoren kaltez.

—Baina, nik, ama, behar nizuke  
gaurko gizartea aurkez:  
Mundu erdi bat bestea hiltzen  
gizonaren borondatez,  
elkar gorroto bait dugu denok  
elkar maitatzeko partez.



7 —Gorputzarekin ez izan inoiz  
desegoki ta lizuna,  
gal dezakezu arima eta  
galdu zure osasuna,  
horrek bakarrik emango dizu  
momentuko poztasuna.  
—Baina, nik soilik hauxe da, ama,  
gaur galdetu nahi nizuna:  
Haragizkoa soilik bada-re  
txarra al da maitasuna?

8 —Lapurretarik ez egin arren,  
pekatu astuna baita,  
eta horrela bazina ezin  
zintuzket inolaz maita,  
hartu eredu bezela, seme,  
zure ama eta aita.  
—Hori benetan zaila zaidala,  
ama, nahi nizuke aipa,  
mundu honetan lapur izanik  
hamabitatik hamaika.

9 —Zugandik urrun beti gezurra,  
hartu laguntzat egia,  
bizipozaren iturri garden  
ta barne-gogo argia,  
nahiz ta gezurrak aurpegi ona  
dakar giza-miseria.  
—Baina ez al da, ama, gezurra  
munduaren gidaria?  
Bele ta putre artean zertan  
izan behar dut txoria?

10 —Misteriozko zerbait omen da  
zeruko Jaun Erregea,  
ulertzen ez ta sinestu behar,  
gogorra zure bidea.  
Ni ez izanik zure moduko  
kristau on paregabea,  
ulergaitza zait jartzen didazun  
Jaungokoaren legea:  
Ikusi ezin, ukitu ezin,  
bakar-bakarrik fedea.

11 —Gogoa eta espiritua,  
nola ez sentimenduak  
ahaztuz gabiltza nora ezean  
irentsi gaitu munduak.  
Bihotz arimak gauza bat eta  
bestea dio buruak,  
gogortzen eta zorrozten gaitu  
gure giza-inguruak,  
oraindik ere Jainko izaten  
jarraitzen baitu diruak.

12 —Sarri askotan nire bizitzak  
zentzu haundirikan eztu,  
aurkitzen bait naiz ia galdurik  
eta bidez nahiko estu,  
errekak ere ozenkien du  
negu beltzean abestu,  
hargatikan zait nire barrena  
tristeziak jota beztu.  
Ta orain zu-re baldin bazoaz  
zertan behar dut sinestu?

# Begiak itsi eta

1991

Doinua: *Maitea nahi badezu.*

---



1 Begiak itsi eta  
ametsetan jarriz,  
beti bera datorkit  
behin eta berriz:  
Oporrak, oporrak,  
udako oporrak  
pixkat goza ditzadan  
lan egun gogorrak...

2 Goizez nagikerian  
gauean ere bai,  
nahiko lo egitea  
besterik ez dut nahi,  
ohean, ohean,  
etzanda ohean,  
nahiz bakarrikan edo  
konpaini onean.

3 Terrazan gosaria,  
bizkarrean krema,  
ahal bada tiranahiak  
atera aurrena,  
ondoren, ondoren,  
gosaldu ondoren  
hondartzara buelta bat  
bazkaldu baino lehen.

4 Toalla zabaldua  
hondarretan gozo,  
buruki eta guzti  
nagoen eroso,  
etzanda, etzanda  
ahozpez etzanda,  
noizbait iritsi behar  
guri ere txanda.

5 Begiak itsi eta  
ametsetan jarriz  
beti bere datorkit  
behin eta berriz:  
Lanean, lanean,  
jo ta ke lanean,  
noizbait jubilatzeke  
itxaropenean.

6 Berriz fabrikan, beraz,  
betiko lekuan  
izerdi kiratsa ta  
koipea eskuan,  
hau lana! hau lana!  
ai ama! hau lana!  
goizero jaikitzeke  
izaten dudana.

7 Egunero muturka  
nagusiarekin,  
hortzak estutu eta  
odolak irakin.  
Hamalau, hamalau  
hogeita hamalau  
urte badaramazkit  
eta nazkatu nau.

8 Lantegi zahar hontan  
ez nago gustora,  
lanik txarrena neri  
didate lepora;  
egitan, egitan,  
hau diot egitan:  
Egun guztia pasa  
ohi dut izerditan.

9 Izerdi zirrioa  
kopetatik behera  
ta esnatzea hobe  
ez nadin ernega;  
beroa, beroa,  
daukadan beroa  
izugarria da ta  
altxata banoa.

10 Hondartzatik bueltatuz,  
eskuan bitterra,  
itzalean bazkaldu  
arkume izterra.  
Seiretan, seiretan,  
ahal bada seiretan  
siesta egin ondoren  
freskatu uretan.

11 Gauean paseatu  
edota igeri,  
zeruan ilargia  
dudala gidari.  
Ta gero, ta gero,  
afaldu ta gero  
ohean atsedena  
hamar ordu edo...

12 Begiak irekita  
ametsa bukatu,  
polita izan denik  
ezin dut ukatu.  
Lanera, lanera,  
banoa lanera,  
oporrik ez dugu ta  
pobreak bait gera.

# Seme ttikina

1991

Doinua: *Bizia ez da nehoiz egoiten.*

---



Seme txikina ari da handitzen.

1 Seme ttikina lo dagoela  
joan natzaio albora  
hari begira hamaika gauza  
etorri zaizkit gogora.  
Maitasunaren lorategian  
egun batean zen lora,  
ta orain nere ondoan nahi dut  
edo ez nago gustora;  
orain maite dut, lehen maite nuen,  
maitatu nahi dut gerora.

2 Dudamudaren zurrunbiloan  
batzutan erdi galduta,  
maiteko al dut? maiteko al nau?  
bihotz barneko burruka.  
Hain da ttikia, hain da xumea...  
daukat eskutik helduta,  
ta ez nuke nahi inoiz dadila  
nere aurretik izkuta  
nere poza ta zorionaren  
giltzarria berak du-ta.

3 Gaur horren ahula eta hauskorra  
egunen baten sotila,  
gaur horren haurtxo eta mutiko  
egunen baten mutila;  
irri garbi ta begi gardenez  
beti dabil nere bila,  
bere arnasa, bere ahotsa  
sentitu nahi dut hurbila,  
semetxo honen ondoan bizi  
eta zahartu nadila.



4 Bere ondoan etzan naiz eta  
hasi natzaio hizketan,  
nahiz eta lotan jarraitzen duen  
hitzegin diot benetan;  
beharko ditu laguntza denak  
mundu aldrebes honetan  
beti ez baita orain bezela  
bizi ahalko ametsetan  
malkorik ez dut bota nahi gero  
penazko negar-minetan.

5 —Zuhaitz emankor izan zaitea  
nahiz gaur zeran landarea,  
ta ez eraiki diru gainean  
zilarrezko aldarea;  
ez izan denen jainko ttikia  
baizik denen mirabea,  
maitasunaren hondogabeko  
gordailu amaigabea,  
era horretan bizi ta goza  
dezazun libertadea.

6 Munduak dakar hondamendia,  
mundua duzu petrala,  
aurpegi onez nahiz aurkezten den  
gizonarentzat hutsala;  
irents zaitzake ohartu ere  
egin gabe berehala,  
etzazu inoiz mundukeritan  
ipini zure ideala  
balia zaitez munduaz baina,  
kontuz ta behar bezala.

7 Putre artetik azkar aldegin  
hartu laguntzat usoa,  
ez ahaztu oso laburra dela  
gure munduko pasoa;  
ez zaitez saia aurkitu nahian  
hemengo paradisoa  
gizonak inoiz ez bait dezake  
lortu zorion osoa,  
bizitza sarri samina baita  
gutxi batzutan gozoa.

8 Jaio ta bizi, bizi eta hil,  
hara zertarako gauden,  
aginteak ta diruak ez du  
inortxo salbatzen hemen;  
bizi erdia ikasten pasa  
nolatan bizi behar den,  
ikasi ordu, beste erdia  
ez gaude gustora, zeren,  
heriotzari begira ezin  
bait dugu hartu atsedeen.

9 Itxuraldi hau hain da laburra,  
hain dugu bizi urria,  
ireki zure maitasunaren  
harkaitzeko iturria,  
zeuk ere edan bertatik eta  
ase zure egarria,  
nigarra bazter ahal baldin bada  
eta zabaldu irria,  
gauak eguna legez bait dakar  
neguak udaberria.

10 Dasta ezazu seme maitea  
zelaien berdetasuna,  
udaberriko zeru urdina,  
neguko hezetasuna,  
goza ezazu gaueko izar  
argien edertasuna,  
bereiz itzazu senda belarra  
eta sasiko asuna;  
hori horrela gerta dagizun  
da nere eginkizuna.

11 Esnatu naiz ta bi begi urdin  
nituen aurrez begira,  
ta nere amets gaizto guztiak  
bertan izkutatu dira.  
—Zer ari zera hemen aitatzko?—  
neri galdezka hasi da.  
—Nahiz gaur lez beti ez heldu biak  
batera egun sentira,  
goizero, seme, zугan dadila  
piztu eguzki ditzira—.

12 Ekainek adi entzun dit baina,  
apenas ulertu didan,  
belaunetatik txirristan behera  
irristatu zait segidan;  
bere begiek esan didate  
zoriontsu dela nigan;  
mundu hontako zorion puxkak  
hara nolakoak diran,  
zertan ibili haizez puztuta  
haundikerien desiran.

# Hamabi urte nituen

1992

Doinua: *Ai gure antzinako.*

---



1 Hamabi urte nituen,  
mutiko flakoa,  
bizkor antzekoa,  
inon ezin egon den  
horietakoa,  
berrogei kilo eskas,  
zorrotza mokoa,  
bi hankamakil eta  
meharra lepoa;  
hara bertsoan neri  
gertatutakoa.

2 Egunero eskolara  
arrebaren bila  
eskuan makila  
joaten nintzenean  
gaua zen hurbila;  
ni izuak pasea,  
aurpegi zurbila,  
bi kilometro oinez  
ta beldurrak hila;  
kontsuelo bakarra  
errezu isila.

3 Anderregi aurretik  
pasatzerakoan  
bizia jokoan,  
libre ibiltzen bait ziren  
zakurrak kanpoan;  
ta behin ohartzera  
nituen ondoan  
bi polizia-zakur  
daduzkat gogoan;  
oraindik ere ez zait  
susto hura joan.

4 Zaunkarekin batera  
jauzia gainera  
eta ni gainbehera;  
nioen: —Hauxe diat  
nere akabera.  
Baina Pantxo Rodriguez,  
nagusia bera  
agertu zen oihuka  
larri ta artega;  
hil eta piztu nintzen  
mundura atzera.

5 Te han hecho mucho daño?  
Ya lo siento chico!  
esan eta kito,  
zakurrei atzetikan  
joaz bi ostiko,  
baina ez zituen ez  
fuerte jota hilko,  
ta ni berriz milagro  
ez ninduten ito;  
zakur haiek markatu  
ninduten betiko

6 Geroztik baldin badut  
zakur bat ikusi  
egiten dut jauzi,  
edo disimuloan  
agudo ihesi.  
Lasai bizi nahi eta  
ezin lasai bizi,  
berdin-berdin zait zakur  
edota nagusi;  
neuk ere doberman bat  
behar dut erosi.

7 Zakurrekin jarraituz  
hau ere gogora  
nahiz ta ez gustora:  
“Espaloiak kaketan”  
dela gaurko moda.  
Paseatzera ezin  
atera inora  
jasan gabe zakurren  
perfumezko froga;  
zerbait pentsatzeko ere  
garaia izango da.

8 Kalez-kale dabilta  
zabalduz gorotza  
eta zaunka hotsa,  
señorito horiek  
non daukate lotsa?  
non dituzte bozala  
eta kate motza?  
lege guztiak lasai  
ohi dituzte bortxa;  
non dago udalzainen  
araudi zorrotza?

9 Paseatzen ibili  
ohi gaitezen lasai  
aste egun ta jai,  
zakurzale entzun hau  
patxadan ta alai:  
Palak saltzen dituzte  
erratzak ere bai,  
garbi zuen opilak  
ez egon gure zai;  
zuen zakur kakarik  
inork ez dugu nahi!

10 Zakurrak ez al daude  
hobeto mendian  
beren armonian?  
Edota baserria  
zaintzen atarian,  
sagutan arbisoro  
edo pinudian,  
ta udaran errekan  
lasai igerian;  
zertan kotxe artean  
ta kale erdian?



# Gauero nire burumuinari

1992

Doinua: *Amodio gauza tristea.*

---

1 Gauero nire burumuinari  
gogoeta bat dario:  
Bizitza honek, gure bizitzak  
ba ote duen balio.  
Zorionikan txikina azkar  
bihurtzen da kalbario,  
irri egiten ahaztu zaigu,  
noiznahi malkoak jario;  
zerbait nahi nuke esan negarra  
bihur dadin bozkario.

2 Orori jarri nahirik gabilta  
neurri estu ta zehatza,  
baina argitik iluneraino  
distantzia hori non datza?  
Edo denontzat berdina al da  
etsipena ta esperantza?  
Eta pozetik atsekabera  
nork neurtu hain bide latza?  
Guztia baita muga ezina,  
guztia baita neurgaitza.

3 Gorrototikan maitasunera  
ez dago distantziarik,  
biak batasun bat osatuaz,  
biak konplize izanik.  
Negarra eta irria, berdin  
hain hurbil elkarrengandik,  
nola bereizi handi ta txiki  
edo txarra onagandik,  
inor ez baita gaizki ta ongi  
berdin bereizten duenik.

4 Abilak eta trebeak gara  
ona txartzen, txarra ontzen,  
handia dena txikitzen eta  
txikia dena handitzen.  
Batentzat ongi ta besteari  
gaizki zaio iruditzen,  
zenbat den asko, zenbat den gutxi  
geuk dugu erabakitzen,  
gero mundua nola dihoan  
ez naiz batere harritzen.

5 Bizilekutik hilobiraino  
hain da distantzia motza  
pentsatu hutsez gelditzen zaigu  
izozturikan bihotza;  
halere goza nahian gabiltza  
gure bizitza mingotsa,  
eguzkialde nahi dugu baina  
berez ez al da laiotza?  
bizitzen hasi orduko presta  
behar bait dugu heriotza.

6 Gure arteko diferentziak  
ezartzen ditu diruak,  
dirurantz doaz gure bideak,  
lanak eta helburuak,  
dirurantz doaz gure errezu  
eta gure erreguak,  
bazterturikan gizontasunak,  
irentsi gaitu munduak,  
basapiztien grinaren grinaz  
galdurik bihotz-buruak.

7 Munduratzean argi berdina  
du denontzat eguzkiak,  
baina batzuri lainoek estal  
ohi dizkiote izpiak,  
batzuk bizitza garratza eta  
begiak malkoz bustiak,  
gutxi batzuntzat aberastasun  
eta zorion eztiak,  
nahiz heriotzak berriro ere  
berdintzen gaitun guztiak.

8 Erreketako ur garden hura  
usteldu zen betirako,  
ta goizaldeko aire freskoa  
kirasturik dago bapo,  
gizonak elkar hiltzen ta hori  
ez da gure onerako.  
Hain aldrebesak zergatik ote  
gara eta zertarako?  
Txuri-beltzean dugun bizitza  
kolorez nahi dugulako.

9 Nahiz zoriona ustegabe  
askotan diguten ostu  
badugu zertaz alaitu eta  
zertaz irri, zertaz poztu;  
maitasunaren alde eginik  
bizitza hontan apostu  
lortu daiteke zorion piskat  
bihotza ez dadin hoztu;  
pobreoi bide hori bederen  
inork ezin digu moztu.

10 Gizonok sortzez ditugun muga  
horietan errenditu  
behar genuke, baina guretzat  
horrek lan gogorrak ditu.  
Gure ezinak ta eskasiak  
onartuko bagenitu  
eromenezko ibilera hau  
baietz kolpean gelditu,  
ta ilun dagoen bizipozaren  
izarra berriz argitu.

# Jon Sarasuari

1992

(E.H.B.E.ko 14. boletina)

---



Bertsotan ez dugu frogatu. Pilotan diferentzia handiak daude gure artean. Guri ez zitzaigun flekilorik mugitu ere.

Luzamendutan luzatuz, eta oraindik ere geroko geroaren gerorako utzita daukagun txolartearen sarrera modura edo, lehen entrega, bihotzez Jon Sarasuari.

*Ez omen dakik nola liteken  
oraingo bertsoa maite.  
Talentu zenbait dutenek aisa  
esplikatuko diate.  
Zorrotzegiak kamuts-herrian  
nekez luzitzen dik bate,  
Liliputera joan beharko duk  
han konprenituko haute.*

(X. Amurizaren Txoriak eta Txoriburuak)

1 Liliputera joan gabe ere  
hemen badaukak laguna,  
bertso munduan haurtzarotikan  
izango duk ezaguna:  
Eskolarteko txapelketetan  
txapeldunen txapelduna,  
ta orain berriz txapelketaren  
aurka mintzatzen zaiguna.

2 Txapelketekin ez dago ados,  
hona oraingo kasketa,  
nahiz ta etxeko bitrina daukan  
txapel ta kopez beteta,  
faboritorik eta morborik  
gabe nahi du txapelketa,  
Liliputera joan beharko du  
hori ez zegok hemen eta.

3 Orain artean lortutakoa  
txapelketari zor dio,  
hainbeste plaza, hainbeste ospe  
horiek direla medio,  
ta orain bere kontra protesta  
gogaikarria dario...  
Alternatiba aurkeztu beza  
kontuak ez dik balio.

4 Belodromoan protestarekin  
sortu zuen hainbat nahaste,  
gero hasi zen: —Hau ez nuen nahi,  
ta hori ez nuen uste.  
Eta Peñaren txapela ere  
ilundu zuen bastante...  
Jakintsu batek aurrez ikusi  
beharko luke hainbeste.

5 Saiotan gaia aurrez ematen  
dutela esaten ari da,  
ta horrelako bertso saioak  
antzerkiak omen dira.  
Nire ustetan horietatik  
behar luke erretira  
nahiz ta jaitsiko zaizkion bere  
bertso saioak erdira.

6 Famaren karga ez duela nahi,  
ai, sinistuko bagendu!  
Jende aurrean gustora dago,  
ez da sekula atzendu,  
han eta hemen agertzen zaigu  
Maiatza edo Abendu,  
ta antzerkia eginda ere  
berdin-berdin kobratzen du.

7 Ez dabil mantso, ez dabil gozo  
hor ziria, han ezkarda,  
saio batean harrotu zen ta  
eman zuen adarkada:  
Haizea hartzera bidali gintun,  
ez zetorren ezertara...  
Jende aurrean errespetoa  
ere gauza ederra da.

8 Besteek ere utzi dituzte  
txapelketako bideak,  
utzi dituzte jaialdi handiak  
bultzatuz saio libreak,  
hemen bakoitzak atera dizkik  
aurrera bere ideak,  
baina biderik nonbait ezin du  
topa gure adiskideak.

9 Nahiz ta gaztetan errebeldia  
ohi den gauza naturala,  
jakin behar du diskurtso horrekin  
ia nazkatu gerala,  
gaurko bidea ez bada ona  
non da bere eginahala?  
Saioak utzi eta has bedi  
antolatzaile bezala.



# Kilometroak-92

## Oiartzunen

1992

---

### Arbasoen oihartzuna

- 1 *Arbasoen oihartzuna  
iritsi da Oiartzuna,  
orain ikusi beharko  
zein den gure erantzuna.*
- 2 Nahiz eta erderaz entzun  
beti euskaraz erantzun,  
bestela agur Euskadi  
eta adio Oiartzun.
- 3 Urtean egun batean  
euskaraz bete-betean,  
gainontzeko egunetan  
lasai erdera "maitean".
- 4 Beraz "vasco por un día"  
askorentzako egia,  
hori da hori benetan  
jarrera zoragarria!
- 5 Zer seme klase gara gu  
ta zer euskaldun eredu?  
Gaixorik daukagun ama  
geuk hiltzen uzten badegu

- 6 Euskarari buruz mintza  
moda-modako ekintza,  
ez badugu erabiltzen  
alfer-alferriz gabiltza.
- 7 Euskarari buruz gutxi  
mintza edo erakutsi,  
euskaraz mintza gaitezen  
ta beste kontuak utzi
- 8 *Iritsi da Oiartzuna  
arbasoen oihartzuna,  
aurrera ere euskaraz  
beraz gure erantzuna,*
- 9 *Beraz gure erantzuna  
da arbasoei entzuna,  
aurrera ere euskaraz  
bedi gure oihartzuna.*

## **Eskuara, euskara edota euskera**

1 Eskuara, euskara  
edota euskera,  
Eskuara, euskara  
edota euskera,  
maldiziorik ere  
ez duen hizkera.

Ai, oi, ai,  
ez duen hizkera,  
eskuara, euskara  
edota euskera.

2 Balio baldin badu  
txakur ta haurrentzat,  
balio baldin badu  
txakur ta haurrentzat,  
beste guztiok ere  
har dezagun aintzat.

Ai, oi, ai,  
har dezagun aintzat,  
balio baldin badu  
txakur ta haurrentzat.

3 Ez ote du merezi  
guztion arreta,  
ez ote du merezi  
guztion arreta,  
hitzegiteko ere  
balio du eta.

Ai, oi, ai,  
balio du eta,  
ez ote du merezi  
guztion arreta.

4 Joka dezagun herri  
jator baten gisan,  
joka dezagun herri  
jator baten gisan,  
—Hizkuntza ere bazuten—  
ez dezaten esan.

Ai, oi, ai,  
ez dezaten esan,  
joka dezagun herri  
hator baten gisan.

5 Oilarrak kukurruku,  
idiak marrua,  
oilarrak kukurruku,  
idiak marrua,  
ta euskaldunak erderaz,  
hori amorrúa!

Ai, oi, ai,  
hori amorrúa!  
Oilarrak kukurruku,  
idiak marrua.

6 Baldin bada euskaldun  
guztion lokarri,  
baldin bada euskaldun  
guztion lokarri,  
hitzegin dezaiozun  
euskaraz elkarri.

Ai, oi, ai,  
euskaraz elkarri,  
baldin bada euskaldun  
guztion lokarri.

7 Baldin eta Herria  
badugu gogoan,  
baldin eta Herria  
badugu gogoan:  
Euskara paperean,  
euskara ahoan.

Ai, oi, ai,  
euskara ahoan,  
baldin eta Herria  
badugu gogoan.

8 Euskara paperean,  
euskara ahoan,  
euskara paperean,  
euskara ahoan,  
gugandik ez dezala  
erderak eroan.

Ai, oi, ai,  
erderak eroan,  
euskara paperean,  
euskara ahoan.

9 Antzinako jentilen  
hizkuntza ber-bera,  
antzinako jentilen  
hizkuntza ber-bera,  
maldiziorik ere  
ez duen hizkera.

Ai, oi, ai,  
jentilen hizkera:  
Eskuara, euskara  
edota euskera.

# Unanueren eskubia

1992

Doinua: *Ai, gure antzinako.*

---

1 Bertsotan behar diot  
mutil honi ekin  
umorearekin  
lagun artean asko  
bait dugu hitzegin;  
eskubiz jo ezker  
ohi digu hutsegin  
ikusit hutsarekin  
odolak irakin,  
pilotaria omen da  
eskubi horrekin!

2 Aski da markatzea  
eskubi aldera  
edo zabalera  
ikusteko eskubiz  
daukan jokaera,  
besoa kakotuta  
hori da jarrera!  
nola joaten gara  
hori ikustera?  
Ez dago sarturikan  
boleaz airera!

3 Mutilak hobetzeko  
badu esperantza  
ta umore latza;  
eskubia sartzean  
isiltzen da kantxa;  
eskubi horrek non du  
pilotari antza?  
Non du indarra eta  
non du segurantza?  
Hirutikan ezin du  
pilotarik altxa.

4 Mutiko hasi berriak  
dizkigu gogra  
ta ezin du mejora,  
horrelako eskubiaz  
ez goaz inora,  
ikusten dudanean  
pizten zait polbora,  
hiru txapa azpira,  
beste hiru gora  
eta gainontzekoak  
frontoitik kanpora.

5 Aitaren, Semearen,  
Espirituaren  
izenean, amen!  
Horrela segitzerik  
ez zegoek hemen,  
nola hire lagunak  
lotsatuta gauden  
aholku hau jarraitu  
arren eta arren:  
Eskubiz entrenatzen  
has hadi lehenbailehen.

# Santo Tomas egunez

1992

Doinua: *Ai gure antzinako.*

---





1 Santo Tomas egunez  
Donosti aldera  
jira eginak gera,  
beti izandu dugu  
harako joera.  
Han ibiliak gera  
aurrera ta atzera  
galdutako zakur zahar  
horien antzera,  
ehun mila baginen  
gutxi gora behera.

2 Konstituzio plazan  
hura ikusmira!  
jendea begira:  
Barazki ta abere,  
gaztain ta mizpira.  
Bi semeak besotik  
tira eta tira,  
azkenean txistorra  
erostera jira,  
larehunean pintxoa  
erotu al dira!

3 Txistorra oso garesti,  
garesti taloa  
hura zen paloa!  
Mizpirak ere mila  
pezetan kiloa.  
-Aita, beste bat nahi dut.  
-Nik karameloa.  
-Erosi hau ta hori...  
betiko leloa;  
zergatik ote naiz ni  
horren memeloa?

- 4 Klase guztietako  
errifak salmentan  
bazter guztietan;  
pausoa nora eman  
saltzailea bertan,  
gainera herriaren  
aldeko lanetan  
ari omen zirela  
zioten benetan,  
hala ere guztiak  
erderaz hizketan.
- 5 Zerramatzarra ere  
kaiolan etzanda  
nahiko pulpa janda,  
ailegatu zitzaion  
hari ere txanda.  
Tokatuko balitzait  
guretzako ganga...  
Ondoan lau petardok  
egin dute eztanda,  
hura erotokia  
egia esanda.
- 6 Zapata beltzak lohiez,  
seme bat erreta  
besteak kasketa,  
laurok ere beztuta  
geneukan kopeta;  
seko amaitua zen  
gure berriketa,  
diruz hustuta baina  
jenioz beteta,  
holako eskarmentu bat  
ona da tarteka.

7 Noizbait ginen eromen  
hartatik eskapa  
hura gure planta!  
Emazteak oihua,  
seme batek zaunka;  
ta ondoren gertatu  
zitzaigun galanta,  
guri gertatu behar  
horrelako marka:  
Kotxera joan ginen  
ta kotxea falta.

8 Atotxako dorrera  
tasisa hartuta,  
hortzak hestututa;  
munizipal ziztrinek  
zuten haren kulpa;  
burua ere neukan  
zeharo galduta,  
bidai hartaz nengoen  
ongi damututa,  
tasisa ordaindu nuen  
eta gero multa.

9 Gure Opel txikia  
gaizkileen gisan  
han zegon gerizan,  
dorrean sartu orduko  
bistan ageri zan.  
Nahiz eta guk errurik  
batere ez izan  
denok urduri geunden  
guztiok dardaizan,  
matrimonioa ere  
sartu zen krisisan.

10 Etxerako bidean  
berriro autoan,  
geurea gogoan,  
denok isil-isilik  
hobe zelakoan,  
prozesio guztia  
barrutik zihoan,  
hartaz ez zen mintzatu  
inor luzaroan,  
geroztikan ez gara  
Donostira joan.

# Senar maitea, bazoaz, beraz

1992

Doinua: *Bizia ez da nehoiz egoiten.*

---

1 Senar maitea, bazoaz, beraz,  
dena erabakia dago,  
ilusioak eta ametsak  
bertan behera, akabo;  
horregatikan lur jota eta  
etsipen beltzean nago,  
halere zure erabakia  
onartu nahi dut zeharo,  
baina, bihotza hustu nahi dizut  
aldegin baino lehenago.

2 Gazteak ginen, oso gazteak,  
ni artean mukizua,  
biak elkarri begiratuaz  
piztu zen maitasun-sua;  
lehendabizian erreparoa,  
lotsa edota izua,  
gero esku ta ezpaineak topo...  
hura zen paradisua!  
Ahaztu al zaizu elkarri eman  
genion lehen musua?

3 Bakar-bakarrik gelditu ginen  
munduan bakarrik biek,  
oraindik ere gaur bezelaxe  
ongi gogora dezaket.  
Dena galdu da ta arrazoia  
zein den ba al daki batek?  
Seme-alabei ere neronek  
argitu beharko diet...  
Oraindik ere gogoan dauzkat  
haserako egun haiek.

4 Ezkondu ginen maitemindurik  
lehen egiten zen modura,  
usain dezaket, uki dezaket  
orduko gure lilura.  
Zergatik lehengo bozkarioa  
bilakatu da tristura?  
Zegatik da gaur samintasuna  
egun hartako mentura?  
Ahaztu al zaizu ezkondu ginen  
egun miresgarri hura?

5 Gora ta gora zihoan sendo  
gure arteko maitasuna,  
seme batekin kimaberritu  
genuen gure ituna.  
Ta orain berriz, hau da desditxa  
gureganatu zaiguna!  
Erdi-erditik txikitu dugu  
koloretako albuna...  
Oraindik ere gogoan daukat  
Aitor jaio zen eguna.

6 Nerea zena zuretzat eta  
zurea zena neretzat,  
gure bizitza maitasunean  
eraiki genuen behintzat.  
Baina, nonbaite emanak ditut  
pauza oker ta traketsak  
eta ilargi zuri argia  
estali du hodei beltzak...  
Ahaztu al zaizkizu orduko asmo  
eta orduko ametsak?

7 Bigarren haurra izan genuen,  
maitasunaren edarra!  
Ni omen nintzen zure emazte,  
zure maitale bakarra.  
ta orain, berriz, nahizta ez zeran  
hain amorante suharra,  
nahiz ta ez zeran gaurtik aurrera  
izango nere senarra...  
Oraindik ere gogoan daukat  
zure orduko irrifarra.

8 Maitasunezko itsas zabala  
gazia bezain gozoa,  
oraintsu arte zakartu gabe  
urdin eta eroso.  
Orain tamalez, uste gabean  
gaiztotu da itsasoa,  
eta bakarrik uztera zoaz  
zure emazte gaixoa...  
Ez duzu ahaztuko orain arteko  
zeure bizitza osoa.

9 Hamabi uda, hamabi udazken  
eta hamabi negute,  
berdin hamabi udaberri ta  
guztira hamabi urte  
elkarri eskainiz geure bizitza  
amodioaren truke.  
Ta orain gure umeengatik  
hauxe esan nahi nizuke:  
Nola oraindik txikiak diren  
laster ahaztuko zaituzte.

10 Gure itsasoa lapastu zen ta  
berak biok gaitu ito,  
lehengo balaku eta laztana  
gaur oihu eta ostiko.  
Ta orain joan aurretik esan  
nahi dizut ozen ta tinko:  
Nahiz ta etsipena heldu daitekeen  
bihar ez bada etziko,  
ez ahaztu gero uzten duzuna  
uzten duzula betiko.




# Baserri txuri-gorrietako

1992

Doinua: *Txoriak eta txoriburuak. (Anje Duhalde)*

---



Euskara, Ekainen hanka bezain goian balego!  
"Haurrak, ikas zazue..."

- 1 Baserri txuri-gorrietako  
ke urdin zerutiarra  
ekaitz gaiztoen eragin txarrez  
galtzen ari da indarra;  
baina herri hau ez da izandu  
sekula herri koldarra,  
gaindituko du, seguru egon,  
gazteleraren oldarra.
  
- 2 Haurrak euskaraz, zaharrak berdin,  
gazteekin ez da giro,  
modernidade guztien jabe  
baina kontzientziz txiro;  
hasi beharko behetik gora  
eta astiro-astiro,  
euskara zaharrak bere lekua  
eskura dezan berriro.
  
- 3 Euskaltegiak, ikastolak ta  
ia ikastetxe denak  
euskaldun dira, beraz aukera  
badu abertzale denak;  
baina, badira —Gora Euskadi!  
oihu egiten dutenak  
eta semeak erdal eskolan  
hezitzen ari direnak.
  
- 4 Periodiko ta irratietan,  
E.T.B.dos-en bezala,  
oraindik ere gazteleraren  
alde beren eginahala,  
irakurlea, audientzia...  
betiko aitzaki petrala,  
horrela euskara nola izango da  
gure hizkuntza nazionala?

5 Euskaraz jakin, erderaz mintza  
horrela ezin dugu jarrai,  
euskaldun asko bilakatu da  
bere hizkuntzaren etsai,  
abertzaleak direla esan  
eta euskarari jai-jai!  
Agintariak errudun dira  
baina -vasco-ak ere bai.

6 Beraz, oraindik gailentzen doa  
gogor hizkuntza arrotza,  
nola baztertu, nola ahaztu  
gure zaharren hitzotsa?  
Indar dezagun, gora dezagun  
Euskal Herriko abotsa  
egungo euskal murmurioa  
bihar dadin abarrotsa.

7 Negua luze eta beltz doa  
luzeegia apika,  
baina eguzki irripa ere  
ikus daiteke aldika;  
gurean mintza etxe ta kanpo,  
builaka edo isilka,  
ez gaitezela euskararekin  
batera jausi amilka.

8 Paper handia jokatu izan du  
gugan edukazioak,  
—Habla cristiano!— zioen beti  
etsaiaren lezioak;  
baina paperak aldatu dira,  
aldatu posizioak,  
epeak jartzen aspertu gara,  
fuera kontenplazioak!

9 Gure arbaso eta aurrekoek  
zuten euskarazko hitza,  
euskaraz hasi, euskaraz buka  
mundu honetako bizitza;  
eta gu orain adarra jotzen  
edota zertan gabilta?  
Ez dakienak ikasi beza,  
dakiena bedi mintza!

10 Zenbaiten ustez gaizki gabilta  
jaso nahirikan euskara,  
gaur egun dugun erdal-giroa  
ezin omen dugu alda;  
birreskuratu nahi dugulako  
radikalak omen gara...  
Kendutakoa eskatzen dugu,  
ta hori pekatu al da?

11 Baserri txuri-gorrietako  
ke zerutiar urdina  
itzali dadin norbait ari da  
jartzen bere ahalegina;  
ez ote gara izango gero  
berriz indartzeko dina?  
Ai! abertzale eta euskaldun  
egitazkoak bagina...

# Lazkao Txiki nor zen

1992

Doinua: *Ez nau izutzen. (X. Lete)*

---



“Joxe Migel zen haren izena,  
Iztueta abizena...”

Lazkao-Txikiren ezkerrean, Joxe Luis Lekuona, Lexoti bertsolaria.

1 Lazkao Txiki nor zen galdetu  
zidaten lehengo batean,  
eta ni ere nonbait nengoen  
horrelako aldarlean...  
Tirriki-tarra erantzun nien  
patxadazko txolarlean  
bertsozaleak ugaltzen joan  
zitezen gure artean.

2 Era honetan agertu nien  
neronek nekien dena:  
*-Joxe Migel zen haren izena,  
Iztueta abizena;  
baserrikoa, baserritarra,  
senideetan seigarrena,  
Lazkaomendin jaio ta bertan  
hazi, bizi ta hil dena.*

3 Aurpegi leuna eta ibilera  
oso pausu handikoa,  
ilea urdindu ta gero ere  
zirudien mutikoa;  
bere hitzetan jarrita, hara,  
gizon honen fisikoa:  
Mutil txikia, arkume edo  
bildots baten antzekoa.

4 Bertsolaria apartekoa,  
jaiotzetik bertsolari,  
umoreraiko beti pronto ta  
tristeziarako nagi;  
inoiz gutxitan isilik eta  
sarritan bertso kantari,  
bertsoak eman dio bizia  
eta berak bertsoari.

5 Ez zen azaltzen doinu, errima  
eta neurrien mirabe,  
gaztetatikan bait zen bertsoen  
sekretu guztien jabe;  
kantari, berriz, ahots apalez,  
goxo, ezti eta bare...  
bertsorik ezin liteke ulertu  
Lazkao Txikirik gabe.

6 Kantari hasi baino lehenago  
jendearen irrifarra  
edo algara lortzen zekien  
bertso egile bakarra,  
eta kantari hasitakoan  
ziria eta piparra  
azken puntuan sartzen maisua,  
pikaroa ta azkarra.

7 Gaiak horrela agintzen eta  
askotan alabeharrez,  
zekien barre egin arazten  
ironiaren indarrez,  
ta berdin-berdin ohartzeko  
jartzen gintuen negarrez  
bihotza ukituz barreneraino  
bertso triste ta xamurrez.

8 Garaipen eta sariak ere  
aitatu behar ondoren,  
berrogei urte baino lehenago  
guztiengandik nabarmen;  
urte haietako garaipenetaz  
bakarrikan bi aipamen:  
Gipuzkoako txapeldun eta  
Euskal Herriko bigarren.

9 Hasi Uztapide ta Zepairekin,  
geroztik ez zen gelditu,  
Mitxelena ta Xalbador ere  
ohi zituen errenditu,  
ta bazekien Egaña eta  
Maialen nola gairiditu;  
lau belaunaldi dantzan jartzeak  
ez al du nahiko meritu.

10 Gure artetik joan zaigu ta  
euskadunok triste gauzka  
bere bertsoak, ordea, gure  
artean utzirik dauzka,  
baina, ez zuen amodioan  
aurkitu gustozko bazka  
ta segidarik gabe, tamalez,  
gelditu da bere kasta.-

11 Saiatu nintzen garbi agertzen  
Joxe Migelen figura,  
jarri zidaten nahiko arreta  
jarri zidaten ardura,  
eta besterik ez zitzaidanez  
momentu hartan burura,  
era horretan bukatu nuen  
nire berriketa hura.

12 Lazkao Txiki nor zen galdetu  
zidaten lehengo batean,  
eta egonik erantzuteko  
umorezko aldardean,  
azaldu nien gizon hau nor zen  
patxadazko txolardean,  
ta baditugu lau bertsozale  
gehiago gure artean.



# Aiako Harria

1992

Doinua: *Mendian gora haritza.*

---



1 Amaren altzo beroan  
bezela bere ondoan  
sentitu ohi naiz run-kuttun-kuttun-  
kuttuna gogoan.  
Begiak itsiz lehengoan  
gogoa haize-hegoan,  
berriro ere Aiako Harri  
maitean nengoan.

2 Burkail hotz eta ilunak,  
pareta heze lizunak,  
garai bateko pilota leku,  
hormatzar hiztunak;  
baina zure erantzunak  
nirearen oihartzunak,  
kontaizkidazu halakon baten  
zeuk dakizkizunak.

3 Urrezko mendi tontorra,  
erromatarren altxorra,  
Katatxuloko urre guztien  
babeslea, horra!  
Euskal Herriko gandorra  
eta zaindari hilezkorra,  
Gipuzkoa ta Nafarroaren  
mugarri jatorra.

4 Nahiz ta nahiko higitua  
oraindik ez hain ahitua,  
Santson handiak izkutatzeko  
zeukan teilatua.  
Mairen Izpiritua,  
Basajaunen sorlekua  
oraindik ere zaintzen dituzun  
menditzar gurtua.

- 5 Gertu nahi zaitut eduki  
nahiz ta beti ezin uki,  
ez nago lasai baldin banago  
zugandik urruti;  
izan dezazun erruki  
esango dizut beldurti:  
Oraindik ere zarela nire  
ametsen barruti.
- 6 Ardien bazka tokia,  
putre zaharren batzokia,  
igandetako ibiltarien  
muino egokia;  
naturaren olerkia,  
egunaren bekokia,  
Eguzkiari jentilek egin  
zioten aulkia.
- 7 Basapiztien kabia,  
haizearen jauregia,  
Nafarroako ate nagusi  
edo ataria.  
Mendien buruzagia,  
kurriloen gidaria;  
gurea zaintzen aspertzen ez den  
mendi gudaria.
- 8 Begiak itsiz lehengoan  
gogoa haize-hegoan  
ibili nintzen run-kuttun-kuttun-  
kuttuna gogoan,  
amaren altzo beroan  
bezela bere ondoan,  
berriro ere Aiako Harri  
maitean nengoan.

# Entzunaz ene balada

1993

Doinua: *Ai, hori begi ederra.*

---



“... geure ikurrin eta guzi”.

- 1 Entzunaz ene balada  
senti daitekeen zirrara:  
beldurra eta ikara.  
Ikusirikan gure herrian  
etsaiak daukan patxada,  
gaitza da, baina, hala da,  
eskualdunak omen gara...  
Jaunak anpara gaitzala.
- 2 Lehen guztiak gudari  
etsaiarekiko adi  
ilusiotan igari.  
Orain ordea, lehengo laguna  
bihurtu zaigu aurkari  
vasco jendea ugari,  
jeltzaileak mandatari  
Pesoeren zerbitzari.
- 3 Ea, Eue, batetik  
Pe ene uve bestetik,  
boterearen eskutik.  
Hatxe bek ere burua dauka  
oraindik lehengo lepotik...  
Nik ez dut ulertzen tutik,  
baina, badakit zergatik  
gauden horrela oraindik.
- 4 Arzallus eta Arregi,  
Buesa eta Jauregi...  
Herri batentzat gehiegi.  
A eredia ikastetxeetan  
eta ikastolak eri,  
honela ezin dugu segi  
amildegiz amildegi  
eta miseriz miseri.

- 5 Politiko, politiko!  
ez zaitut oso begiko,  
traje beltzeko ijito.  
Zueri esker gure herria  
bihurtu da eszeptiko,  
hainbat farsa ta errito,  
gero atzetik ostiko...  
gorde zaitezte betiko.
- 6 Orain dena ta paktua,  
gure kontrako tratua  
zoritxarren olatua.  
Agur asaba zaharren doinu  
xamurrezko euskal kantua,  
hau bada gure patua  
guztiz madarikatua  
etsipenez markatua.
- 7 Jarraituz oraingo martxan  
gaude egoera latzan  
etsipenezko baratzan.  
Igarririkan Gobernu honek  
nondik nora garamatzan,  
denok zulora ez gaitzan  
ezin gara egon zalantzan  
ta jarri gaitezen dantzan.
- 8 Bide honetatik ihesi  
hutsetik gaitezen hasi,  
Ez bait dugu hau merezi.  
—Gora Euskadi!— berriro ere  
beharko dugu garrasi,  
bihotz kolpea nagusi,  
mitin, kantu ta eresi  
geure ikurrin ta guzi.

# Ironiazko koktela

1993

Doinua: *Dozena bat bertso berri.*



1 Gure anbulatorioa  
bertsoz jipoitzera noa  
bada hamar bat bertso idazteko  
nahiko motiboa.  
Funtzionarien feudoa,  
medikuntzaren saldoa;  
hona, Gizarte Segurantzaren  
Salbe ta kredoa.

2 Telefonoz hartu txanda,  
bihar bertan, hau da ganga!  
Ordua ere "once y media"  
erderaz esanda.  
Goiz guztirako parranda  
ziur horrera joanda;  
harritzekoa ez da mediku  
bakarra izanda.

3 Aginduak paretetan:  
"No fumen" horko horretan,  
eta "Silencio por favor", berriz  
letra handietan.  
Gaixotasunen errekan  
gainbehera goaz kunetan;  
sano dagona ere gaixotu  
egiten da bertan.

4 Zerbitzu honetan gaude  
herri atzeratuen pare:  
Gaixo dagona funtzionarien  
beldur ta mirabe.  
Nahiz garen bertako jabe  
anparo handirik gabe...  
dirudutenak igual ez, baina,  
behartsuei galde.



- 5 Ez dihoala ederki  
jakin edozeinek daki,  
nahiago nuke hori aldatzeko  
zer egin baneki.  
Errezetaren aitzaki  
jubilatuen biltoki  
bilakatu da gaixotetxea  
poliki-poliki.
- 6 Gaixo begi edo hortzak,  
min buru edo bihotzak,  
berdin-berdin da, alferrik dira  
deiar dar mingotsak.  
Buru-makur eta lotsak,  
geure etxean arrotzak;  
otso artean gaizki ibili  
ohi dira bildotsak.
- 7 Nahiz ta guztion burutan  
lekutan daude lekutan...  
Mediku finak eta otzanak  
Txindokiren puntan.  
Jartzen gaituena sutan  
hau da lautatik hirutan:  
Sendagile onak direla, baina,  
etxeko kontsultan.
- 8 Eskatuz espezialista  
buka ezinezko lista,  
lau hilabete itxaron behar,  
ezin da sinista.  
Denok garenez aldizka  
horrelakoen kronista  
nik diodana edonork noiznahi  
dezake egizta.

9 Noiz helduko da iraultza?  
Jaunak, hau ez bait da martxa...  
Gure diruak nora doazen  
badaukat zalantza.  
Ai, Gizarte Segurantz!a!  
Zurea ez da ez txantxa...  
Aspaldi galdu zuen gaixoak  
zuga esperantzaz.

10 Buka dezadan nobela  
ironiazko koktela,  
sendagileren bat haserretu  
daiteke bestela.  
Sendatzekotan gibela  
presta ezazu sakela  
eta Opus-eraz zuzen  
besteak bezela!

# Gaia jarrita

## Euskaldunon Egunkarian argitaratuak

---

### Oceano Andrades

Oceanoren positiboak  
ez nau gehiegi harritu,  
atzerritarrak ezin baitira  
ekipoan errenditu.  
Sendagile ta zuzendaritza  
jokoz kanpo utzi ditu,  
Errealean ez genuke hainbat  
ezbehar eta delitu,  
gure taldeak geure mutilez  
osatuko bagenitu.

1993

### Soldadutzarako zozketa

Cetmea hartu eskutan eta  
soldadutzara joatean,  
kakizko zenbait analfabetok  
hartu ohi zaitu menpean.  
Bertan hainbeste gazte galdurik  
milatik gora urtean,  
ez joan, gazte, uko eginez  
indarra duzun artean,  
hango 'firmes' ta 'apunten' ezta  
behar gure gizartean,  
jeneral karka ta txuskeroak  
utz gaitzazue pakean.

1993

## **Tejero erregimen irekian**

Berriro ere kolpistarentzat  
justiziak kapotea,  
baina ez da hain arriskutsua  
Tejeroren bigotea,  
okerragoak libre dabilta,  
justiziaren torpea!  
Trikorniorik ez dute baina  
herriari garrotea,  
latzagoa da politikoen  
eguneroko kolpea.

1993

## **Atotxa**

Txuri-urdinak Atotxa zaharran  
ezin dira errenditu,  
Anoetako estadioak  
bereganatuko ditu.  
Nostalgiaren ttantta batekin  
hauxe nahi nuke argitu:  
pena haundirik ez nuke izango  
nahiz Atotxa despeditu,  
Toshack ta bere atzerritarrak  
agurtuko bagenitu

1993

## **Ikurrinaren mendeurrena**

Ifarra ta Hegoa  
bi zatitan, hara!  
Nafarroa kanpoan  
lasai dugu laga,  
abertzale aleak  
zatiturik gara,  
etsaia etxean da  
hau da hotzikará,  
gaixo euskaldun egiten  
gaituen euskara...  
Zertarako ikurrina  
herririk ez bada?

1994

# Xenpelarren heriotzaren 125. Urteurrena

1994

(Argia egutegian argitaratuak)

---

1 Xenpelar oso abila zela  
askori diot aditzen  
bertso kantari eta idazten  
asko omen zen luzitzen.  
Hura ez zen ibiltzen  
kantuz dirua biltzen  
oraingo hauen moduan,  
debalde festa prestatzen zuen  
gogoia zuen orduan.

2 Ehun eta hogeita bost urte  
joan dira hil zenetik,  
abenduaren zortzi batean  
izurrite batengatik.  
Bertsotan gaztetatik  
berrikuntzen atzetik  
sortuz doinu ta neurriak,  
saiatu zen ta haren ondoren  
jaio zaizkigu berriak.

3 *Ia gureak egin du eta  
aizak Manuel mainontzi,  
betroiarenak ta Pasaiako  
plazatik hainbat notizi...*  
Nahiz ta ez diren gutxi  
kantatu gabe ez utzi  
alferkeriak utzita,  
eta gaur bertan Errenterira  
egin deiogun bixita.

# Anaia Faustino eta Josuneren Ezkontza

1994

Doinua: *Izotz ondoko eguzki (Lete-Iriondo).*

---

Lagun hauentzat gure  
kantu amestia  
Faustino ta Josune  
bikote ezta:  
Euri gozoa eta  
eguzki izpia,  
maitasun *ortzadarrak*  
behar duen guztia. (bis.)

Zuen maitasunaren  
*eguzki gorria*  
zuentzat epeltasun  
irrikagarria  
uda ta negu bion  
bizi-iturria  
nahiz egunero gorde  
goizero berria. (bis)


Zuen maitasunaren  
*iturri gardena*  
zuentzat edaririk  
desiratuena  
uda ta negu mendi  
goitik datorrena  
nahiz egunero edan  
agortzen ez dena. (bis)

# Ihauteri, ihauteri

1994

Doinua: *Galtzaundi.*

---





Neri deritzait mozorro  
apellidua momorro  
izengoitiz birigarro  
deitzen didate kattarro

1 Urte guztirako ere  
ez dago hain gaizki:  
janari goxoz enpo,  
edari onez busti,  
gero kalera atera  
mozorro ta guzti  
itxuraz aldatuta  
hainbat giza-pizti.

*Ihauteri, ihauteri  
gurekin nork nahi du segi?  
Ihauteri, ihauteri  
mozorro bat, bi aurpegi.*

2 Otsoak uxatzeko  
artzaien antzera  
edota Erromako  
apaizen legera  
guk ere hartzen dugu  
mozorro tankera  
baina gure helburua  
ez da orduko bera.

*Ihauteri, ihauteri  
mozorro bat, bi aurpegi  
ihauteri, ihauteri  
gurekin nork nahi du segi?*

3 Ostegun Gizena ta  
Ostiral Flakoa,  
Larunbata Normala  
Igande bapoa,  
Astelehen-asteartez  
ez al da nahikoa?  
Hausterre egunarekin  
aste konpletoa.

*Ihauteri, ihauteri  
gurekin nork nahi du segi?  
Ihauteri, ihauteri  
mozorro bat, bi aurpegi*

4 Kalera irten eta  
ez dago atsegin:  
Mutilak neska dira,  
neskatilak sorgin,  
dantzariak herrenka,  
herrenak poxpolin,  
panpinak atso zahar ta  
atso zaharrak panpin.

*Ihauteri, ihauteri  
mozorro bat, bi aurpegi  
ihauteri, ihauteri  
gurekin nork nahi du segi?*

5 Lantzeko Zarpantzarrek  
jarririk iladan  
berdin leku zelaian  
berdin-berdin maldan  
dantza egiten dute  
trakets eta baldan  
joale hotsak jarraituz  
tolon-tilin-talan.

*Ihauteri, ihauteri  
gurekin nork nahi du segi?  
Ihauteri, ihauteri  
mozorro bat, bi aurpegi*

6 Baserririk baserri  
zaharren usantza  
gurdira igo eta  
soinu eta dantza  
batek irrintzi eta  
besteak arrantza  
edozeinek ematen  
dio honi antza!

*Ihauteri, ihauteri  
mozorro bat, bi aurpegi  
ihauteri, ihauteri  
gurekin nork nahi du segi?*

7 Saiheski ta xolomo  
ta ogi txigorra...  
laster haratuztea  
datorkigu, horra!  
Garizuma badator  
ilun ta lehorra  
arimak ordain dezan  
urteroko zorra.

*Garizuma, garizuma  
hau da hau etorkizuna!  
Garizuma, garizuma  
arimaren osasuna.*

8 "Hautsetik zatoz eta  
hauts izango zara"  
entzutean berriro  
tripetan zirrara,  
fuera margo gorriak  
ta fuera maskara...  
Pazko egunez gu ere  
berpiztuko gara.

*Garizuma, garizuma  
arimaren osasuna  
Garizuma, garizuma  
hau da hau etorkizuna!*

*Neri deritzait mozorro  
apellidua momorro  
izengoitiz birigarro  
deitzen didaten kattarro*

9 Itxuraz aldatuta  
hainbat giza-pizti  
kalera irtetzen gara  
mozorro ta guzti,  
janari goxoz enpo,  
edari onez busti...  
urte guztirako ere  
ez dago hain gaizki.

*Ihauteri, ihauteri  
horrela dezagun segi  
ihauteri, ihauteri  
mozorro bat, bi aurpegi.*

# Itxurak itxura

1994

Doinua: *Esateko ez naiz lotsa.*

---



1 Gazte askoren itxura  
eta daukaten piura  
umore sanoz azter ditzadan  
garaia heldu da.  
Beraz, hau, hori ta hura...  
berritsu baten modura,  
baina, burlazko barrerik egin  
gabe inoren kontura.

2 Horko PEÑA horko BASKA  
sortu den modako kasta  
kale ertzetan pilatuz lortu  
duten errakasta;  
batek kokotean hazka  
besteak litrona dasta...  
Zeinek ordena ote lezake  
era horretako lardaska?

3 Gazteri honen ametsak  
nahiz ta ez izan traketsak  
konprenitzeko beti ez dira  
izaten errezak,  
fuera militar aketzak!  
fuera armazko defentsak!  
diote, baina, jazten dituzte  
militarren bota beltzak.

4 Galtza bakero berriak  
urdinak edo gorriak  
eta modaren modaz ez dakit  
nondik ekarriak,  
edertasunez urriak  
itxuraz berregarriak:  
bi belaunetan ta ipurdian  
zulo ikaragarriak.

- 5 Kazadora ipurdian  
ta bizkarra agerian,  
bat tapatuta bestea bistan,  
aldrebeskerian;  
pintura beltza begian  
ta ibilera nagian  
zapata takoi-handietatik  
ia-ia erorian.
- 6 Hau da itxura arrotza!  
zaharrak gaituzte lotsa,  
igual jertsea azpitik eta  
gainetik gorontza,  
neskek ilea motz-motza  
edo gandorra zorrotza,  
mutilek, berriz, ile luzea  
eta atzean mototsa.
- 7 Mutil edo neskatoa  
KOLEGA edo TRONKOA,  
galtza moreak, jertsea zazpi  
koloretakoa;  
kate lodiz gerrikoa  
itxurarik gabekoa  
ta sudurretik zintzilik, berriz,  
beren belarritakoa.
- 8 Beste batzuren joera  
luto betezko jazkera,  
jertsea beltza, TXUPA ere bai  
galtzekin batera,  
beltza aurretik atzera  
eta beltza goitik behera  
baina, ilea igual berdea  
martzianoen antzera.



9 Amaituaz azterketa  
umorezko berriketa,  
orain benetan bota nahi nuke  
azken gogoeta.  
Kalean jarriz arreta  
ilundu ohi zait kopeta  
gazte jendea serio eta  
triste ikusten dut eta.

10 Kale gorriko kultura  
lanik ezaren tristura  
ilusioaz alaitu dadin  
garaia heldu da.  
Birreskuratuz lilura  
eta *itxurak itxura*  
oraindik ere bizi daiteke  
bizitzaren abentura.

# Zahartzaroa daukat hurbil

1994

Doinua: *Esateko ez naiz lotsa.*

---



- 1 Zahartzaroa daukat hurbil  
ta ez nago batere trankil  
azken aldian nabil serio  
apal eta umil;  
lehen lerden eta sotil  
orain ximur eta zurbil...  
Dena utzita fraile sartzeko  
pentsamentuetan nabil.
  
- 2 Zahartzaroaren altxorra  
ikusi dezaket, horra:  
gaztaroko hainbat gehiegikerik  
utzitako zorra,  
jaitsi da gure gandorra  
eta handitu zilborra,  
galtzak gerrian ezin lotuta  
ipurdi aldean sobra.
  
- 3 Joan zen gure aukera  
sasoiarekin batera  
eta gainera ohartu gabe  
kasikan kolpera.  
Gorputz-arimak minbera  
zeharo eskastu gera,  
lehen etxean ez ginen sartzen  
ta orain ezin atera.
  
- 4 Eguneroko borroka  
gaitzak inola ezin bota,  
gaur tentsioa jaitsia eta  
biharko igota,  
bi pausu emanda jota  
ajez josia nagota:  
Tendinitis bi belaun gainetan  
eta bi oinetan gota.

5 Zahartzaroari ihesi  
medikutan gera hasi  
hau debekatu, bestea kendu,  
hura galerazi.  
Honela ezin gera bizi,  
hau al genuen merezi?  
hankak makildu, lepoa mehetu  
ta tripa galanta hazi.

6 Pozaren partez tristura  
datorkit bihotz-burura,  
min handirikan ez izan arren  
noiznahi arrenkura.  
Ardoaren partez ura,  
kamamila ta berdura...  
Ai, hara zertan gelditu zaigun  
lehengo lepazoko hura!

7 Gauzak ez dira ez berdin  
lehengo gozoa gaur ozpin  
urte gutxitan zer egin duen  
naturak nirekin:  
Lehen buruz sendo eta fin,  
gorputzez lirain ta panpin,  
ta orain berriz gorputzez sendo  
eta burutikan arin.

8 Mahaiean nintzen nagusi  
berdin gozo edo gazi  
igual zopa bukaeran ta  
oiloa lehenbizi  
nahiz eta hezur eta guzi  
mesprezurikan ez deusi  
jan eta edan ezin gelditu  
eta orain ezin hasi.

9 Maitatzen nintzen galako  
egunean lau asalto  
gauean bitan, goizez bestea  
siestarako pronto.  
Orain aldatu naiz pranko  
eta aitortu beharko:  
larunbatean saioa eta  
aste guzirako planto.


10 Naizena eta nintzena,  
nintzena eta naizena  
diferenteak direla oso  
gauza nabarmena,  
baina orain azken-azkena  
hau da esan nahi nukeena:  
Umore ona dela urteek  
kenduko ez didatena.

# Maitemindu naiz

1994

Doinua: *Ludi bizitza abesti gozoz.* (L. Txiki)

---



1 Maitemindu naiz zurekin, neska,  
mutil koskor baten eran,  
eta geroztik bizi izateko  
hauxe nahi nuke aukeran:  
Zure itsasoan igeri egin  
ta zure zeruan hegan,  
zure itzalean babestu eta  
zure iturritik edan.

2 Lau haizetara oihu egingo dut  
lau haizetara garraisi,  
ez dakitenek jakin dezaten  
ez dakitenek ikasi,  
orain arteko bizilekutik  
banihoala ihesi  
honez aurrera nahi dudalako  
zure bihotzean bizi.

3 Horretarako oraindik nola  
inolaz ez den berandu  
nere bihotza nere bizitza  
zuri nahi dizut zabaldu,  
nere gutizi bakarra zein den  
hara garbiro azaldu:  
Zuri begira ñir-ñir jarrita  
zure begietan galdu.

4 Zure gauean lokartu nahi dut  
ta zure loan amestu,  
ondoren zure egunsentian  
esnatu eskurik-esku  
eta zu ere gozo esnatzeko  
murmurioan abestu  
kantatu xamur bat belarri ertzera  
besarkatuz estu-estu.

- 5 Egunez, berriz, izango zara  
neska, nere pausaleku,  
nere arrazoi bakarra eta  
nere bizitzaren mentu...  
Goitik behera zure izateaz  
nahi nukeenez jabetu  
zure argitan eseriko naiz  
ta zure aurpegian letu.
- 6 Maitasunaren aldabak era  
honetan jo didanean  
eta bizitza honetako zentzu  
dena galdu dudanean  
bakar-bakarrik hauxe nahi nuke  
jarriz zure aldamenean:  
Maitasunaren musika entzun  
zure isiltasunean.
- 7 Lokarri lodiz, lokarri sendoz  
zuregana nauzu lotu,  
nere jo-muga bakarra zara  
nere gailur, nere bortu.  
Neguan ere zure epela  
ez bedi inoiz agortu,  
horrela nere barruko izotza  
zure sutan bedi urtu.
- 8 Ez dut hain garbi ikusten bide  
honek nora garamatzen,  
ni behintzat ezin ninteke bizi  
beti zure esperantzan,  
noizbait nahi nuke eguzkia hartu  
ondoren zure hondartzan,  
zure uhinetan bustita berriz  
zure hondarretan etzan.



# Nahiz ta dakidan

1994

Doinua: *Ludi bizitza abesti gozoz. (Lazkao Txiki)*

---

1 Nahiz ta dakidan basamortura  
doala nire mezua,  
norbaitek jaso nahi baldin badu,  
hona nire errezua:  
Zergatik pizten dugu hain errez  
grina gaiztoaren sua  
alde batera zeharo ahaztuta  
maitasunezko musua?

2 Apaltasunak txikiena ere  
bilaka ohi du handia,  
handitasuna gauza ona da  
txarra da handikeria...  
Pekatu denak gorrota lasai  
baina ez pekataria  
gure gorputza izan ez dadin  
arimaren hilobia.

3 Gizonak tiroz defenditzen du  
oraindik bere legea  
tiroz bakea, erlijioa,  
tiroz bere ohorea...  
Guk lege onik ez dugu behar  
gizon onak bai ordea  
erdoildu ez dadin, kamustu ez dadin  
maitasunaren goldea.

- 4 Nahikoa izan ta gehiago behar  
gizakion miseria,  
gehiago daukan hari begira  
grina eta inbidia...  
Janak gosea kentzen du eta  
edariak egarria,  
baina diruak ez du aseko  
gizonon zekenkeria.
- 5 Hau nirea da, hori ere bai  
lehendabiziko hitzetik,  
bihotzak gogor, barkamenik ez,  
ahal bada egurra atzetik...  
Ta mendekuak ez du gauza onik  
esan nahi nuke zergatik:  
Gaiztoen pare jartzen bait gaitu  
ta barkamenak gainetik.
- 6 Gizona dabil ideal baten  
ametsa bete ezinez  
eta norbaitek betetzen badu  
bide garbi ta duinez  
haren atzetik joango gara  
lurperatzeko ahaleginez...  
Ameslaria hil dezakegu,  
baina haren ametsik ez.
- 7 Norgehiagokak berekin ditu  
makina bat muturreko,  
berdin da anaia zapaldu edo  
anaia eduki menpeko...  
Zertan prestatu gaztea horrela  
hurkoa menderatzeko?  
Haurrak hezitzen saia gaitezen  
gizonik ez zigortzeko.

8 Ni, ta ni, ta ni, jarriak gaude,  
nitarrak gara zeharo,  
bost behar, hamar izaki eta  
hogeita hamar nahiago...  
Kentzea gauza txarra da baina,  
ez ematea txarrago,  
norbait beretzat bizi denean  
besteentzat hilda dago.

9 Lagunak pozten saia gaitzen  
hauek harritzen ez ezik,  
maskararik ez, itxurarik ez,  
argi, garden ta biluzik...  
Kosta ahala kosta bizi ditzagun  
gure egun apurrak pozik  
nola hiltzen den ez baitu axolik  
nola bizi garen baizik.

# AURKIBIDEA

---


<b>Antton Kazabon, katanbegi galduaren begi-belarriak</b> (Joxerra Garzia) .....	7
<b>Ehiztaria.</b> Oiartzungo Bertso paper lehiaketa. 1. Saria. 1987 .....	13
<b>Osasuna, mundu honetako odasuna.</b> Etxegiña Saria (Elgoibar). 1. Saria. 1988 .....	19
<b>Sagardotegian.</b> Lekuona Saria (Oihartzun) 3. Saria. 1988 .....	23
<b>Jo Pilota.</b> "Azala" musika taldearen -Mari Gaizto- diskan argitaratuak. 1989 .....	29
<b>Urtarrilatik abendura.</b> Hendaiako Iparragirre Saria. Aipamen berezia. 1989 .....	33
<b>Amari.</b> Berako Bertso paper lehiaketa. 1. Saria. 1989 .....	37
<b>Asto Terrorista.</b> 1989 .....	41
<b>Retegi-Tolosa.</b> Anoetako finala. 1989 .....	47
<b>Ihesi joan zaidan maiteari.</b> 1989 .....	51
<b>Esnatzerakoan.</b> Xenpelar Saria (Euskaltzaindiak). 3. Saria. 1990 .....	57
<b>Bakarrik goza ohi digun festa.</b> Algortako B. Enbeita Saria. Aipamen berezia. 1990 .....	63
<b>Aita, zergatik zaude negarrez?</b> Algortako B. Enbeita Saria. Aipamen berezia. 1990 .....	67

<b>Errenteriarri.</b> Zapirain Saria (Errenteria) 2. Saria. 1990 .....	73
<b>Gipuzkoako finala.</b> 1991 .....	79
<b>Porrusalda I —Errealari—</b> 1991 .....	83
<b>Porrusalda II —Politikoei—</b> 1991 .....	85
<b>J. Barrionuevo</b> (Euskaldunon Egunkarian argitaratua) 1991 .....	87
<b>Hogeita hamalu urte.</b> Lekuona Saria. (Oiartzun) 3. Saria. 1991 .....	89
<b>Amonak 90 urte.</b> Sunbillan bazkaria familia osoak. 1991 .....	95
<b>Hara pregoia.</b> Algortako B. Enbeita Saria. Bertso Eskolen arteko 2. Saria. 1991 .....	97
<b>Ttikitako beldurrak.</b> Algortako B. Enbeita Saria. Bertso Eskolen arteko 3. Saria. 1991 .....	103
<b>Ene barruko korapiloa.</b> Algortako B. Enbeita Saria. Aipamen berezia. 1991	109
<b>Zertan behar dut sinestu?</b> Zapirain Saria (Errenteria) 1. Saria. 1991 .....	113
<b>Begiak itsi eta.</b> 1991 .....	119
<b>Seme ttikina.</b> Araba-Bizkaiako I. Bertso paper lehiaketa. 2. Saria. 1991 .....	123
<b>Hamabi urte nituen.</b> 1992 .....	129
<b>Gauero nire burumuinari.</b> 1992 .....	135
<b>Jon Sarasuari.</b> 1992 .....	139
<b>Arbasoen oihartzuna.</b> Kilometroak 1992 Oiartzun .....	143
<b>Eskuara, euskara edota euskera.</b> Kilometroak 1992 Oiartzun .....	144
<b>Unanueren eskubia.</b> 1992 .....	149
<b>Santo Tomas egunez.</b> Zapirain Saria (Errenteria) 2. Saria. 1992 .....	151

<b>Senar maitea, bazoaz, beraz. 1992</b> .....	157
<b>Baserri txuri-gorrietako. 1992</b> .....	161
<b>Lazkao Txiki nor zen. 1992</b> .....	165
<b>Aiako Harria. Lekuona Saria (Oiartzun).</b>	
2. Saria. 1992 .....	169
<b>Entzunaz ene balada. 1993</b> .....	173
<b>Ironiazko koktela. 1993</b> .....	177
<b>Euskaldunon egunkarian argitaratutako batzuk</b> (Ozeano Andrades, Soldadutzarako zozketa, Tejero errejimen irekian, Atotxa, Ikurrinaren mendeurrena)	
1993-94 .....	181
<b>Xenpelarren heriotzaren 125. Urteurrena. 1994</b> .....	185
<b>Anaia Faustino eta Josuneren Ezkontza.</b>	
Oiartzungo Ozentzio Ermitan. 1994 .....	187
<b>Ihauteri, ihauteri. Euskadi Irratiako Bertso paper lehiaketa. 1. Saria. 1994</b> .....	189
<b>Itxurak itxura. Lazkao Txiki Saria. (Ordizia) 3. Saria. 1994</b> .....	195
<b>Zahartzaroa daukat hurbil. 1994</b> .....	199
<b>Maitemindu naiz. Lekuona Saria. (Oiartzun) 2. Saria. 1994</b> .....	203
<b>Nahiz ta dakidan. 1994</b> .....	207



1051071  
G-128/87



## Antton Kazabon

Lehenik eta behin, bertso jarri hauek kantatu ahala, bapatean ulertu eta gozatzekoak direla esan behar. Eguneroko hizkera herrikoi, errez eta xamurra erabili ohi du egileak liburuska honetako bertso sail ezberdinetan zehar.

Hitzekin jostatuz, gai ezberdinak jorratu ditu, irakurleak kantatzerakoan, bertsoekin batera sentimenduak askatu eta hegan egin dezan. Maitasuna, heriotza, herria, gurasoak... Denetik. Batzutan serio eta gordin, eta bestetan umorearen ukitu ironikoa nagusi.

Antton Kazabonek, bertsoak argazki eta batez ere marrazki ugariz ilustratuta apainduak aurkeztu dizkigu, edukia alaitu, eta dotoretzea helburu dutelarik.



Oiartzungo Udalaren  
laguntzarekin argitaratua

ISBN 84-89080-22-4



G